

1. Capitulo I. La antropología económica en perspectiva

Zergatik eta zertarako sortzen da antropologia?

Antropologia ekonomikoak lehenengo momentutik izango duen HELBURU nagusietako bat zientzia ekonomikoan zegoen **teoria hegemonikoari, neoklasikoari, aurre egitea** izango da. Zalantzan jarriko ditu teoria honen zutabe nagusiak:

1) Alde batetik, teoria neoklasikoaren arabera, giza natura bera da toki guztietan. Portaera ekonomikoa berdina izango pertsona guztietan, tokii guztietan, edozein momentutan. Bada, antropologia ekonomikoa honen aurka altxako da.

2) Bestetik, teoria neoklasikoaren arabera ekonomia urritasunaren zientzia da. Baliabideak urriak direnez eta norbanakoaren portaera ekonomikoa arrazionala izanik, baliabide eskas horiek eta etekinak maximizatzea da norbanakoaren helburua. Etekinak maximizatzea da norbanakoaren portaera arrazional unibertuala. Ideia horren aurka agertzen da antropologia ekonomikoa sortzen denean.

Teoria ekonomiko neoklasikaoren aurka agertzen dira lehenengo antropologoen, batez ere, sustantibistak, esango dute **ekonomia ezin dela banandu egitura politiko-historiko-kultural-ekologiko-instituzional batetik**. Ekonomia ezin da banandu egitura horiek osatzen duten errealitatetik, egitura horiek baldintzak aldantzen dituelako toki bakoitzean.

Ekonomilari neoklasikoak honen aurrean, antropologoei sasizientzia egitea egozten diete, datuetan oinarritzen ez direlako.

Kapitulu honetan planteatzen dute antropologia ekonomikoa teoria ekonomiko neoklasikoari kritika egiteko jaiotzeaz gain, **ikuspegi ekologikoarekin oso lotuta egon da**, inguruneak portaera ekonomikoan duen garrantziaz arduratu da.

Antropologia ekonomikoaren historian beste gai batzuk egon dira periferikoak: merkatuen banaketa geografikoa...

Antropologia ekonomikoa jaiotzen denetik bi korrante teoriko nagusi banatzen dira: formalistak eta sustantibistak.

2. Capitulo II. Antropología y economía

Ekonomiaren historia garatzen da kapitulu honetan.

Hortan sartu baino lehen, kapituluaren hasieran, EKONOMIAREN ESANAHIARI erreparatzen zaio. Planteatzen da ekonomia ulertzeko kontuan hartu behar dugu esanahi ezberdinak dituela, **bi esanahi nagusi**, bi ikuspegitik definitzen da ekonomia:

Alde batetik, IKUSPEGI SUSTANTIBOIA. Ekonomiaren esanahi sustantiboan pentsatzen dugunean ondasunak eta zerbitzuak nola ekoiztu, nola banatu eta

nola kontsumitzean arduratzean datza. Kasu honetan, kultura da osotasuna eta honen barruko zati bat da ekonomia.

Bestetik, IKUSPEGI FORMALA. Definizio honetan, aldiz, ekonomia gizabankoaren portaera moduan aurkezten da. Ekonomia kalkulu arrazionalen bidez etekinak maximizatzea da.

Bi kontzeptu hauek (formalista/sustantibista) Max Weberrengandik bereizten dira, berak formulatu zituen. Bere arabera, a) **ikuspegi formala** kalkulu arrazionalari lotzen zaio, pertsona bakoitzaren portaera kalkulu maximizatzaile batean oinarritzen da, pertsona bakoitzak etekin handiena nola lor dezaken kalkulatu eta horren arabera funtzionatzen du. Jarrera formal hau individualismoarekin lotuta dago. Aldiz, b) **ikuspegi sustantibistak** kolektiboa hartuko luke kontuan, gizartea. Jarrera formala, pertsonari lotuta, jarrera sustantibista taldeari. Bere ustez, biak arrazionalak dira gizarte guztietan.

Ikuspegi kronologiko batetik, historia ekonomikoko ESKOLA EZBERDINAK.

1.- Aristoteles eta eskolastikoak

Grezia Klasikoa: Aristoteles

Aristotelesek *Politika* liburuan, EKONOMIA **etxea administratzeko** modu bezela aurkezten du. Beraz, ekonomia politikaren barruko zati bat bezala ulertzen du.

Etxearen adiministrazioa **autarkikoa** izan behar duela plantetazen du, autohorniduran oinarrituta. Autohornidura horretarako **krematistika** kontzeptua proposatzen du, hau da, ondasunak lortzeko ekintza. Krematistika bi mota bereizten ditu: 1) etxeko beharrak asetzeko abian jartzen den ekintza eta 2) dirua lortzeko ekintza.

Aberastasuna ona izan daitekeela proposatzen du, baina helburuaren arabera. Aberastasuna ona inzango da zure helburua etxeko beharrak asetzea denean, eta txarra aberastasuna pilatzeagatik soilik duzunean. Eta gogor kritikatzan du lukurreriaren bidez lortutako aberastasuna.

Erdi Aroa: Pentsamendu eskolastikoa

Pentsamendu Eskolastikoa Erdi Aroko garai historikoarekin dago loturik. Eliza da arrazoiaren jabea, bide guztiak markatzen dituena, eliza da zientzia kontrolatzen duena, ezagutzaren monopolioa duena...

Modu honetan, garai honetan, ekonomia **teologia eta zuzenbidearekin** lotzen dute. Eragin erlijiosoa nabaria da teologiarekin lotzean, eta bestetik, zuzenbidearekin lotuz ekonomia normatiboa bihurtzen dute, arauak sartzen dira ekonomiaren funtzionamenduan. Ikuspegi normatiboak ekonomiak nolakoa izan behar duen adierazten dute.

Teoria eskolastikoaren bi aspektu garrantzitsuenak dira: 1) INTERESA eta 2) BALIOAREN TEORIA.

Akinoko Tomasek, lehenik, gaitzesi egiten du dirua lortzea diruaren bitartez, 1) **kondenatzen du interesa** eta lukurreria. Horregatik, bere ustez interesak gaizki daude, horren bitartez dirua lortzen dugulako diruaren bitartez. Irakurketa etikoa erlijiosoa egiten du.

Bestetik, balioaren teoria ekonomiaren historian oso garrantzitsua izan da, balioaren inguruan hausnartzean ekonomiaren inguruko hausnarketa filosofiko bat egiten dugu, eta hau eskolastikoen ere egiten dute. Balioaren inguruan, teoria ezberdinak egongo dira korrante teorikoen arabera. Eskolastikoen 2) **balioaren teoria utilitarista** bat garatzen dute. Hau da, balioa erabileran kokatzen dute. Balioa bakoitzak irudikatzen duen erabileraren arabera izango da. Erabilgarria denak balioa izango du, eta erabilgarria ez denak ez du baliorik.

2.-Fisiokrazia eta ekonomia politikoa

Fisiokrazia Erdi Aro eta Aro Modernoaren trantsizioan kokatzen da, XVIII.mendean, eta François Quesnay da autore nagusia.

Aristotelesek ekonomia politikaren barruan kokatzen zuen, eta eskolastikoen teologia eta zuzenbidearekin lotuta. Fisiokratek, aldiz, lehenengoz planteatzen dute **ekonomia isolatu** daitekeela, eta **eremu autonomo** bat izan daitekeela. Ondorioz, ekonomiak lege propioak dituela planteatzen da.

Fisiokraten BALIOAREN TEORIAN lurraren garrantzia azpimarratzen dute. Balioaz hitz egiteko lurrean zentratu behar da. Lurra da balioa sortzen duena eta horren ondorioz, fisiokratek gizarte klaseak daudela esaten dute:

- 1) Klase produktiboa lurretik produktuak lortzen dutenak, nekazariak osatzen dute gehienbat, baita ehiztariak, arrantzaleak eta mineroak.
- 2) Klase antzua, artisauak eta merkatariak. Lurreko produkturik lortzen ez dutelako.
- 3) Klase jabea. Hau da, terratenienteak edo lur-jabeak.

Hala ere, garai honetan oraindik ekonomia politikaren menpean egongo da, erregeak mugatzen baitu esparru ekonomikoa, hau autonomoa izan arren.

3.-Ekonomia klasikoa

Adam Smith eta David Ricardo izango dira autore garrantzitsuenak, XVIII.mendeko britaniarrak, industri iraultzaren eta kapitalismoaren garapenaren testuinguruan.

Ekonomia klasikoarentzat Merkaturia izango da instituzio nagusia. Ekonomiaren funtzionamendua ulertzeko Merkatuari erreparatu behar zaio. Are gehiago, merkaturia instituzio nagusia izateaz gain, instituzio eraginkorra dela babesten dute.

Ikuspegi klasikoaren AURREKARI moduan aurkeztu ditzakegu Locke eta Mandeville.

Alde batetik, Lockek esparru ekonomikoan jabetza pribatuaren garrantzia eta norbanakoaren garrantzia azpimarratu zituen.

Bestetik, Mandevillek planteatzen du interes pertsonalek ongizate orokorra ekartzen dutela. Ikuspegi berekoi batetik interes indibidualak bilatuz gero, zuretzat aberastasuna lortzeaz gain, helburu kolektibo bat lortuko da, ongizate orokorra eta ondasun komunak. Honez gain, laissez-faire kontzeptua proposatzen du, hau da, merkatu librearen apologia zuzena, utzi libre merkatuak egin dezala nahi duena bera autoerregulatzen baita.

Adam Smith

Autore famatuena ekonomia liberalaren barruan. XVIII.mendearen bukaeran egin zuen bere lana, Marx baino lehenago. Bere liburu famatuena "Nazioen Aberastasuna" da. Bertan zera babesten du: merkatu librearen bitartez aberastasuna sortuko da, ahalegin indibidualarik oztoporik jarri gabe.

Lehen ideia nagusia da, nazioen aberastasunaren oinarria merkatu librean datza. Estatua baztertuz, aberastasuna handituko litzake.

Bestetik, lan banaketa proposatzen du. Honen bidez, ekoizpena eta aberastasun handitzen da. Bere ustez lana banatu eta espezializatu behar da ekoizpena eta produktibitatea hobetzeko.

Hirugarrenik, BALIOAREN TEORIARI dagokionez lanari ematen dio garrantzia. Balioa lanean kokatzen du. Lan egitean balioa sortzen dela ez du ukatzen, eta onartzen du langileak egiten duen esfortzua.

Baina balioaren ideian sakontzean ondorioztatzen du, balioa preziora hurbiltzen dela gobernuaren interbentzioa desagertzen denean. Beraz, merkatuaren esku ikustezinari eragiten utzi behar zaio, balioa eta prezioak berdinak izateko. Horrenbestez, balioa merkatuko prezioarekin loturik dago.

Fisiokratek egindako gizarte klaseen egitura berrartzen du, eta klase produktibo eta inproduktiboak bereizten ditu.

- a) **klase produktiboak** produktu industrialak zuzenean sortzen dituztenak dira.
- b) **klase inproduktiboak**, aldiz, aberastasuna sortzen ez dutenak dira, zerbitzuak eskeintzen dituztenak (abokatuak, artistak...).

David Ricardo

Kostu konparatiboaren legea proposatzen du. Hau da, herrialde bakoitzak bere herriko abantailak aprobetxatu behar ditu, bertan dagoen produktu batean espezializatu eta hori ekoiztu, eta gainerako guztia inportatu. Produktu baten ekoizpenean espezializatu eta bestea inportatu.

Iparraldeko eta Hegoaldeko herrialdeen arteko lan banaketa, nazioarteko lan banaketa, islatzen da David Ricardoren ideia. Izan ere, hirugarren munduko herrialdeei eskatu zaie lehengaien produkzioan espezializateko, eta produktu manufakturatuen inportatzeko.

Ricardoren BALIOAREN TEORIAN lanaren garrantzia azpimarratzen du eta ez prezioarena Smithen bezala. Produktu baten ekoizpena eta ordaintzen den prezioa ez datoz bat. Merkatuko prezioa ez dago lotuta balioarekin, BALIOA soilik lanean eta pertsonen ahaleginean kokatzen du. Balioa **egindako ahalegina eta langilearen lanak** ezartzen du.

Honez gain, **soldata eta etekinen arteko kontraesana** agerian utzi zuen. Enpresarioak lortzen duen etekinaren eta ordaintzen duen soldataren artean desoreka bat dago. Ideia honetatik sortuko du Marxek plusbalia kontzeptua.

4.- Ekonomia Marxista

XIX.mendearen bigarren erdiko (50-hamarkadatik, 80.hamarkada arte) korronea, *Kapitala* eta *Manifesto Komunista (1848)* obra nagusiak.

Marx ezaguna da ekonomiari dagokionez gauza ezberdinengatik.

1) Hasteko, Smith eta Ricardo ekonomilari politikoak ziren, ekonomia politikarekin lotuta zegoela onartzen zuten. Horregatik, Marx agertzen denean **Ekonomia Politikari Kritika** egiten diola aldarrikatzen du. Bi kritika nagusi egiten dizkio. Alde batetik, a) Marxek dio Smithen sortutako **ekonomia politikoa zientzia burgesa** dela, burgesiaren interesak babesten dituelako, burgesiaren etekinak justifikatzeko sortua delako. Bestetik, b) ekonomia politikoa **momentu historiko jakin batean sortutako ikuspegi ekonomiko** bat dela esaten du, eta ez errealitate naturala. Momentu historiko batean agertzen da, industri iraultzaren ondorioz sortutako burgesiaren interesak babesteko.

2) Honez gain, Marxek onartzen du Ricardok egindako ekarpena (balioa lanean eta esfortzuan dago). **Balioaren oinarria langilearen lanean** kokatzen baita.

3) Hirugarrenik, merkantziak (produktu bat merkatuaren logikan sartzen denean, saldu edo erosi daitekenean) ulertzeko eman beharreko lehen pausua haien arteko harremanari erreparatzen dela dio. Merkantzietan pentsatzean pertsonetan pentsatu behar dugula dio, horrebestez, **merkantzien arteko harremanak sozialak dira**. Harreman sozial horiek langileen eta jabeen artekoak, esplotazio harremanak dira.

4) Laugarrenik, **ekoizpen modu desberdinak** azaltzen ditu: batetik, merkantzia diruan bihurtzen da beste merkantzia bat lortzeko (M-D-M); bestetik, dirua merkantzia bihurtzen da diru gehiago lortzeko (D-M-D). Lehenengoan dirua merkantzia gehiago lortzeko bitartekaria da, aldiz, bigarreanean merkantzia diru gehiago lortzeko bitartekaria da. Bigarren honetan oinarritzen da kapitalismoa.

5) Bostgarrenik, **plusbalia** kontzeptuaren garrantzia azpimarratzen du. Plusbalia kontzeptu politiko bat da, esplotaziozko harreman sozialetan oinarritzen delako, egiturazko lapurretan oinarritzen delako. Izan ere, patrioiak langileari kentzen dion lanaren zatia da plusbalia. Horregatik, Marxek asmatu zuen esplotazio tasa, kontzeptu politikoa matematizatu zuen.

6) Materialismo historikoa.

Materia funtsezkoa da errealitatea eta ekonomia ulertzeko. Materiaren eboluzio historikoan erreparatu behar da. Historian ekoizpen modu ezberdinak egon dira: primitibo komunala, esklabutza, feudalismoa, kapitalismoa, sozialismoa eta komunismoa.

5.- Ekonomia Neoklasikoa

Ekonomia Neoklasikoaren hamarkada nagusia XIX.mendeko azken laurdenetik XX.mende hasiera arte izango da.

Ekonomia Neoklasikoan liberalismo ekonomikoarekin loturik dago.

Alde batetik, **ekonomia eremu isolatu gisa** ulertzen dute. Ekonomia gizartearen beste eremu batzuk kontuan hartu gabe (kultura, politika...) aztertu daiteke. Ekonomiak berez funtzionatzen du bere kabuz, lege propioak ditu.

Beste aldetik, **gizarte klaseak ez dira kategoria egokiak** ulertzeko ekonomia eta gizartea, ondorioz gizarte klaserik ez dago, garrantzitsuena norbanakoa da. Ekonomia ulertzeko **norbanakoari** erreparatu behar diogu, norbanakoaren portaera ekonomikoari. Norbanakoaren portaera ekonomiko hori utilitarista da, beti bilatzen du erabilgarritasuna.

Honez gain, Ekonomia Neoklasikoa planteamendu klasikoaz haratago doa, Ricardo eta Smithen onartzen zuten balioa lotuta zegoela egindako lanarekin. Baina Ekonomilari Neoklasikoek ukatzen dute haien aitzindariak planteatutako oinarri teorikoa, lana eta balioak ez dute zerikusirik, gauzen balioa gizakiek gauzekiko duen erlazioaren arabera da. **BALIOAREN TEORIA: norbanako bakoitzak gauza bakoitzari ematen dio balioa bere ikuspegi utilitarioaren arabera.**

Idea honi jarraituz, teoria honen arabera ekonomian ez da hain garrantzitsua politika, baizik eta psikologia. Teoria hau behar psikologikoetan oinarritzen da.

Honekin lotuta beste elementu batzuk azpimarratu daitezke:

1) Gizakiak aukeratzen ditu gauza batzuk edo beste bere ikuspegi utilitarioaren arbaera. Beraz, aukeraketa ikuspegi utilitarioarekin lotuta dago.

2) Teoria hau momentu historiko zehatz batean sortu zen, eta oso baliagarria izan zen ikuspegi politiko batetik marxismoari aurre egiteko. Ekonomia Neoklasikoa tresna teoriko baliagarria izan zen elitearen eskutan marxismoari aurre egin, eta elitearen interesak babesteko.

1900-1930 urteen artean Ekonomia Neoklasikoa Ekonomia Errealean eragin handia izan zuen herrialde kapitaliste gehienetan, hegemonikoa izan zelako europako lurralde guzteitan eta amerikar. Ez da bakarrik proiektu teoriko bat, baizik eta proiektu horren erabilpen politikoa. Herrialde guztietan zegoen eredu ekonomikoa ekonomia neoklasikoaren printzipioetan oinarriturik zegoen, eta erusiar iraultza horren aurkako iraultza bat izango da.

Ekonomia Neoklasikoaren arabera ekonomia ulertzeko kontuan hartu behar dira, **BI ZUTABEAK**, gizakiaren beharrak eta bizirauteko ditugun tresnak eta baliabideak.

Gizakiaren BEHARRAK infinituak dira, eta behar horiei aurre egiteko BALIABIDEAK mugatuak dira. ONDORIOZ, **ekonomia urritasunaren zientzia** litzake.

Ekonomia Neoklasikoa ekonomia matematikarrekin lotzeko ahalegina egin zuten, ekonomia politikatik urrundu eta objetibotasuna egozteko. Objektibitatean oinarrituriko zientzia bat eraiki nahian.

Alfred Marshall da autore ezagunetarikoa Ekonomia Neoklasikoaren hasieran. Bera da erreferente teorikoa ekonomia neoklasikoan pentsatzen dugunean. Bere planteamendua honakoa da: 1) ekonomia ez da ekonomia politikoa, 2) eskari-eskaintzaren teoria asmatzen du, eta 3) ekonomia eremu isolatua da, eta ez du zerikusirik beste disziplenekin.

6.- Keynesianismoa, Monetarismoa eta Neoinstituzionalismoa

1940an Ekonomia Neoklasikoaren hegemoniari aurre egiten dion korrante nagusia 1.KEYNESIANISMOA da.

John Maynard Keynesek planteatzen du teoria hau, 1936an argitaratutako liburuarekin "*The General Theory of Employment Interest and Money*". Testuingurua honakoa da 1929an ekonomia kapitalista krisian sartzen da, eta era berean, ikuspegi neoklasikoa. Egoera honen aurrean, Keynesek proposamen erreformista bat egiten du, kapitalismoa domestikatzeko proposamena. Horrela, Bigarren Mundu Gerra ondoren europa mendebaldeko herrialde guztietan Keynesianismoa bihurtzen da alternatiba bakarra, hegemonikoa bihurtuz 70.hamarkada arte.

Modu honetan, Keynesianismoak Ekonomia Neoklasikoari egiten dio aurre:

a) Alde batetik, keynesianismoak dio merkatuak ez duela lortzen oreka ekonomikoa, guztiz kontrakoa lortzen du hain zuzen, **merkatuak desoreka ekonomikoa**.

b) Beste aldetik, Keynesianismoa liberalismo ekonomikoa kritikatzeko agertzen da, ondorioz, merkatuaren nagusitasuna, merkatuaren autoregulazioa, merkatuaren paper egokia ekonomikoaren fuzionamendua orekatua izateko kritikatzeko ditu. Hau guztia ukatzen duenez, **planteamendu alternatiboa egiten du: ESTATUAREN PAPER berreskuratu**. Ekonomian Estatuaren eskuhartzea berreskuratzeko apostua egiten du, ekonomia justuago bat lortzeko.

Ondoren, 1970.hamarkadan, Keynesianismoa kritikatzeko agertzen da 2.MONETARISMOA. Planteamendu liberala berreskuratu egiten du. Milton Friedman izango da autore nagusia.

Neurri handi batean, Monetarismoa inflazioari aurre egiteko agertzen da. Helburu honetarako **monetaren kontrola** proposatzen dute. Ikuspegi hau agertu zenetik, mundu kapitalistak monetarismoa ikuspegi nagusia izan da.

3.NEOINSTITUZIONALISMOAK ez du eragin handirik gizarte mailan, baina interesgarria da. Teoria honek ekonomia neoklasikoa kritikatzeko ekonomia modu isolatuan ulertzen duelako, eta honen aurrean, ekonomia ulertzeko

instituzioen garrantzia azpimarratzen du. Ondorioz, testuingurua kontuan hartu behar dela aldarrikatzen da. Testuingurua kulturaren arabera ezberdina denez, errealitate kultural bakoitzeko instituzio ezberdinak kontuan hartu behar dira.

Autore nagusietako bat **North** izango da. Honek a) **norbanakoaren portaera oso baldintzatua** dagoela esaten du, badago ingurune bat norbanakoa baldintzatzen duena, eta norbanakoaren jokaera baldintzatzen duena. b) Erakunde bakoitzean norbanako asko helburu bakar baten bila biltzen dira, beraz, **kolektibitatearen garrantzia** azpimarratzen du. c) instituzioen ideia ez du lotzen erakundeekin, baizik eta **arauekin**. Hau da, gu mugitzen garen ingurune batean erakundeak daude, gu erakunde horien parte gara, eta horietan joku arauak daude, eta horren arabera jokatzeko dugu.

Laburbilduz, gure inguruneak gure jokabide ekonomikoa baldintzatzen duela aldarrikatzen du, jokabide inidividual maximizatzaile klasikoa kritikatu.

3. Formalistak eta Sustantibistak

Antropologia ekonomikoa 1952an sortzen da Herkovitsen *Economic Anthropology* liburuarekin. Azken hau sortzen denetik eztabaida bat pizten da barnean: sustantibista eta formalisten arteko eztabaida.

Alde batetik, FORMALISTAK planteatzen dute a) **teoria ekonomiko neoklasikoa baliogarria** dela momentu historiko guztietan aplikatzeko. Hau da, teoria baliogarria kontsideratzen dute gizarte guztietan ekonomia ulertzeko. Honekin batera, teoria ekonomiko neoklasikoak planteatzen duen b) **norbanakoaren jokabide ekonomiko maximizatzailearen** ideia bereganatu egiten dute formalistek.

Formalisten artean kokatzen da **HERKOVITS**. Honen arabera, ekonomia ulertzeko bi aldagai hartu behar dira kontuan, urritasuna eta aukera. Izan ere, bere ustez, urritasuna errealitate estruktural bat da, eta garrantzitsua da ikustea horren aurrean norbanako gisa zer aukeratzen dugun. **Baliabideak urriak direlako, eta gure nahiak, aldiz, infinituak**. Honez gain, norbanakoaren portaera ekonomiko maximizatzailea gizaki guztiengan berdina dela planteatzen du, hau da, unibertsala, **gizakiak psikologikoki berdinak** garelako aldarrikatuz.

Sustantibistak azken ideia honi erantzuten diote esanez urritasuna kontzeptu kultural bat dela, beharren arabera urritasunaren ideia aldatu daitekeelako. Azken batean, urritasunaren ideia hori ekonomia kapitalistaren baldintza bat dela aldarrikatzen dute.

Beste aldetik, SUSTANTIBISTAK, formalistei aurre eginez, planteatzen dute a) teoria ekonomiko neoklasikoa ezin zaiola gizarte guztiei aplikatu; gizarte bakoitza ezberdina da eta horren arabera tresna ekonomiko ezberdinak behar ditugu gizarte horiek ulertzeko. Honen arira, sustantibista gehienek planteatzen dute teoria ekonomiko neoklasikoak soilik mendebaldeko gizarte kapitalista ulertzeko balio duela. Honez gain, b) norbanakoaren jokabide ekonomiko maximizatzailearen unibertsaltasuna ukatzen dute. Egoera asko

daude munduan, eta momentu bakoitzean jokabide ekonomikoak ezberdinak dira. Azkenik, c) sustantibistek ekonomia beste instituzioekin oso lotuta ikusten dute, are gehiago, batzuetan instituzio horien barruan dagoela: erlijioa, politika..

Hauen artean autore nagusia **POLANYI** litzake. *The Great Transformation* da idatzitako liburu garrantzitsuena, bertan liberalismo ekonomikoari kritika zorrotza egin, eta estatuaren interbentzioa aldarrikatzen du.

Hiru ideia nagusi planteatzen ditu:

1) Alde batetik, mendebaldeko ekonomia kapitalista historikoki eraikitako errealitate sozial bat da. Ondorioz, ekonomia guztiak momentu jakin batean eraikiak dira.

2) Bestetik, ekonomia ez da esfera autonomoa. Ekonomia beste instituzioekin harremanetan ulertu behar da, elkarreragiten eta batzuetan beste instituzio batzutan txertatua. Beraz, ezin da modu isolatuan ulertu.

3) Azkenik, esaten du moneta, merkataritza eta komertzioa historikoki banaturik egon diren hiru instituzio direla, eta hauek batuta agertzea errealitate berria da. Horregatik, kapitalismoan zergatik dauden hirurak batera da galdetu behar dena.

4. Karl Polanyi: “La gran transformación”

Karl Polanyik liburu honetan indarrean zegoen ikuspegi ekonomikoari buruzko hausnarketa zorrotz bat egin zuen, irakurketa kritiko bat liberalismo ekonomikoari buruz. Horixe da liburuaren HELBURU nagusia: **indarrean zegoen ikuspegi ekonomiko hegemonikoari, liberalismo ekonomikoari, aurre egitea argudioak emanez**. Izan ere, XIX.mendearen erditik XX.mendearen lehenengo hiru hamarkada arte liberalismo ekonomikoa izango da ikuspegi hegemonikoa lurralde kapitalista guztietan, jaun eta jabe zen arlo teorikoan, arlo akademikoan baita ekonomia errealean ere.

Modu honetan, Polanyik 1944an argitaratu zuen liburu hau, bigarren mundu gerra bukatu baino lehenago.

LIBURUAREN HASIERAN, XIX.mendean sortutako zibilizazioa pikutara joan dela esaten du. Hau da, **liberalismo ekonomikoak sortutako proiektu ekonomiko-politikoak porrot** egin duela; lau zutabeak erori egin dira:

1) Lehenik, XIX.mendeko *Europako potentzien arteko (Frantzia, BH eta Alemania) oreka sistema*, urte askotan gerrak izatea ekidin zuena.

2) Bigarrenik, *urre-patroia* munduko ekonomiaren antolaketaren sinboloa, aberastasuna neurtzeko.

3) Hirugarrenik, *merkatu autoerregulatua*, librea.

4) Laugarrenik, *Estatu liberala*.

Polanyiarentzat zutabe nagusia merkatu librea da, gainerako sistema guztia mantentzen duena, ondorioz, merkatu librea erortzen denean, sistema osoa erortzen da; estatuen arteko oreka desagertzen da...

XX.MENDEKO HISTORIA EKONOMIKO-POLITIKOA

Gerrak: 1^omundu gerra (1914-18), errusiako iraultza (1917), 1929ko Crack, 1920 Faxismoa Italian (Mussolini), alderdi nazia antolatzen 1930an Hitler boterera, 1936 Espainiako gerra zibila, 2^omundu gerra (1939-45).

Lehenengo Guda Mundialean nabaritzen hasten da XIX.mendean eraikitako proiektu ekonomikoa krisian zegoela. Lau zutabeetan oinarrituriko zibilizazio hori krisian sartzen da XX.mendeak aurrera egin ahala, eta krisi horren erakuslea izango da 1^oGuda Mundiala. Azken honetan, zutabe bat desagertzen da, potentzien arteko oreka desegiten da. Momentu historiko hau ulertzeko; alde batetik, potentzien arteko oreka hori apurtu egiten da, interes inperialisten ondorioz. Bestetik, XX.mendearen hasieratik nabaritzen hasiko dira europako eredu ekonomikoa liberalaren mugak, beraz, merkatu autorregulatuaren hutsunean. Honez gain, lehenengo mundu gerra bukatzean, batzuk garaile eta beste batzuk galtzaile suertatzen dira, eta XX.mendean lehenengo esperientzia faxista ematen da Italian, tresna gisa mugimendu komunistari aurre egin eta krisian zegoen ekonomiari irtenbidea emateko.

BIGARREN KAPITULUAN, baieztapen bat egiten du Polanyik: **faxismoa ulertzeko Ingalaterran industri iraultza ematen den garaira egin beharko genuke atzera**. Izan ere, garai honetan kapitalismo modernoaren sortzen denean, barnean darama etorkizuneko faxismoa. Kapitalismoa irabazi pribatua oinarritzen bada, irabaziak maximizatzea bada bere helburua, aberastasuna kontzentratu egingo da, eta honek gatazka sozialak ekarriko ditu, eta aberastasuna kontzentratu duten horiek haien pribilegioak mantentzeko proiektu politiko bat sortuko dute, faxismoa bezala.

HIRUGARREN KAPITULUAN, industri iraultzaren eta kapitalismo modernoaren hasiera ulertzeko planteamendua egiten du. Polanyiarentzat kapitalismoa martxan jartzeko ezinbestekoa izango da **lur komunalaren lapurketa masiboa**. Marxek akumulazio originarioaren kontzeptua erabiltzen du, hau da, kapitalismoa martxan jartzeko ezinbestekoa izango dela momentu historiko batean ondasunak pilatzea, eta hori loturik dago lur komunalen pribatizazioarekin.

LAUGARREN KAPITULUAN, ideia nagusia honakoa da: **ekonomian merkatuaren zentralitatea zerbait berria da, XIX.mendetik aurrera, historian ekonomiak beste oinarri batzuk izan ditu, elkarrekotasuna, birbanaketa eta autohornidura**.

Merkatua instituzio ekonomikoa gisa antzinatek dator, baina papera ez da beti berdina izan. Merkaturaren papera historian zehar aldakorra izan da, eta gainera, merkatuaren zentralitatea soilik emango da XIX.mendetik aurrera, liberalismo ekonomikoa martxan jartzean. Ordu arte, merkatua instituzio ekonomikoa periferikoa zen. Esate baterako, Erdi Aroan, ekonomia autohorniduran oinarritzen zen, baserri bakoitzean ekoizitakoaz bizi zen familia, merkatua bigarren maila batean gelditzen zen.

Laburbilduz, Polanyik esaten du merkatu antzinatik datorrela, baina paper perfierikoa izan duela eta ez duela ekonomia antolatu.

Horregatik, merkatua ez da behar ekonomiaren funtzionamendua ulertzeko; ekonomia oinarri ezberdinak antolatu dute:

1) **elkarrekikotasuna**, 2) **birbanaketa** eta 3) **autohornidura**.

Historian zehar ekonomia erregulatzeko instituzio ezberdinak egon dira, merkatua ez direnak, ikaragarritzko garrantzia izan dute mendeetan zehar, eta merkatuaren garrantzia soilik XIX.mendean agertuko da. Gainera irabazia maximizatzearen ideia ere zerbait berria da.

BOSTGARREN KAPITULUAN, **merkatuaren eboluzioa historian** aipatzen du. Merkatu zaharrak egon dira, baina merkatu horiek alde batetik, merkatu lokalak ziren, eta ez zuten determinatzen eredu ekonomikoa. Gaur egun merkatua globala da, eta eredu ekonomikoa determinatzen du.

ZORTZIGARREN KAPITULUAN, **kapitalismoaren irakurketa historikoa** egiten du, kapitalismoaren historian zehar aberastasuna kontzentratzeko zer nolako neurriak hartzen diren ikusteko. Alde batetik, aipatutako lur komunalen pribatizazioa. Bestetik, langileen aldeko legislazioak etengabe urratuak izatea eta desagertaraztea. Honez gain, azkenik, "laissez faire" "utzi egiten" mezua bidaltzea estatuari, interbentziorik ez izateko. Merkatu liberaren ideia ez da ideia natural bat, kapitalistek inposatu dutena estatuaren bitartez.

Azken bi kapituluetan, irakurketa historiko bat egin ondoren, XX.mendera iristen da, faxismoaren inguruko hausnarkete bat eginez.

Faxismoa: burgesiaren diktadura

Kapitalismoa: liberalismo politikoa

Polanyik esaten du faxismoa izan zela kapitalaren irtenbide autoritario bat. Azkenean inporta duena da kapitalisten interesak babestea da, liberalismo politikoa bidez edo diktaduraren bidez. Faxismoa ez da sortzen arrazoi nazionalengatik, jendea berez horrela izateagatik, faxismoa proiektu bezala mundu osoan garatu zen.

5. Aproximación neomarxista y economía política

Ikuspegi neomarxista ez da eskola formalistan, ez sustantibistan kokatzen, baina azken honetatik askoz hurbilago dago.

Antropologia ekonomikoa 50.hamarkadan kokatzen da, eta lehenengo urte horietan bereziki formalismo eta sustantibismoaren arteko borroka emango da, aurrerago sortuko da korrante neomarxista. Azken hau 60.hamarkadatik aurrera pizten da, Godelier eta Meillaessoux autore nagusiak izanik.

Konrronte neomarxistaren **OINARRI TEORIKO NAGUSIAK**:

Ikuspegi neomarxistaren lehenengo oinarria, kontzeptu klabea, **ekoizpen modua** (*edozein gizartek produktuak sortzeko erabiltzen dituen bideak*) da.

Azken hau da teoriaren abiapuntua. Ekoizpen modua bi aldagaietan banatzen da: **ekoizpen indarrak** eta **ekoizpen harremanak**. Izan ere, harreman pertsonalak kontuan hartu behar dira ekoizpen moduak aztertzerakoan, baina ikuspegi kritiko batetik, gizarte klaseak daudelako eta desorekak eta hierarkiak daudelako. Ekoizpen moduan pentsatzean, beraz, pertsonen arteko harremanetan pentsatu behar dugu, ondorioz ekoizpen moduak gizarte harremanak dira. Gainera gizarte klaseak dauden ekoizpen modu guztietan harremanak esplotazio harremanak dira.

Alde batetik, ekoizpen harremanak. Kapitalismoko ekoizpen harremanetan pentsatzean gizarteko sektore ezberdinetan pentsatu behar da, sinplifikatuz: alde batetik, patrioiak, eta bestetik, langileak. Ekonomiari erreparatuta, oso garrantzitsua da jabetzari erreparatzea, nork duen makinaren jabetza. Beraz, ekoizpen harremanetan jabetza duena, jabeak, eta langilea daude, lan indarra duena. Langileak eskeini dezakeen gauza bakarra bere lan indarra da, jabetzari ez duelako, beraz, bere lan indarra saldu egiten du soldata bat eskuratzeko. Ekoizpen harreman hauek esplotazioan eta zapalkuntzan oinarrituta daude. *Ondorioz, ekoizpen modu bakoitzaren arabera, ekoizpen harreman ezberdinak ematen dira*; gizarte klaseak daudenean ekoizpen harremanak esplotazio eta subordinazio harremanak dira.

Bestetik, ekoizpen indarrak ekoizteko erabiltzen diren ahaleginak, indarrak dira, bi izanik nagusiki: **langilearen lana** eta **ekoizpen bitartekoak** (makinak, instrumentuak, lan objektuak).

Gizarte formazioa: Gizarte talde bat, une historiko zehatz batean, gune geografiko batean, egitura ekonomiko jakin bat dutena, ekoizpen modu zehatz batekin, eta egitura politiko batekin.

Oinarri honen ondoren, autore neomarxisten **EKARPEN PROPIOAK ARLO TEORIKOAN** honako hauek dira:

Ekarpen teoriko handiena 1) **EKOIZPEN MODUEN ARTIKULAZIOA**ren kontzeptua da. Hau da, *ekoizpen modu bat baino gehiago egotea momentu berean, baina bakarra izatea dominatzailea*. Izan ere, ordu arteko autore gehienek planteatu zuten ekonomiari erreparatzean ekoizpen modu bakarrari begiratu behar zaiola, eta ekonomia ekoizpen modu bakarrarekin lotzen da. Honen aurrean, Neomarxistek planteatzen dute errealitatean ekonomiaren egoera konplexuagoa dela, eta errealitatean ekoizpen moduen artikulazioa ematen dela, hau da, momentu historiko askotan, gizarte askotan, badago ekoizpen modu bat hegemonikoa eta dominantea dena, baina beste ekoizpen batzuk ez dira desagertzen, mantendu egiten dira. **HORRENBESTEZ**, ekoizpen modu ezberdinak egon daitezke, batek bakarrik dominatu arren.

Neomarxista frantses hauek beste kontzeptu bat asmatzen dute, 2) **EKOIZPEN MODU AFRIKARRA**. Ekoizpen modu afrikarra kategoria baliagarria kontsideratzen dute ekonomiako momentu historiko bat irudikatzeko. Afrikan bazegoen nekazaritzari lotutako ekoizpen modu bat, baina kolonialismo garaian (Europako kolonialistak Afrikara joaten dira esklabuak hartu eta ameriketara eramateko) bertako aristokrazia klase berri batean bihurtzen da, merkataritza klasea. Urrea eta pertsonen merkataritza egiten zuten, eta horretan datza

neomarxisten arabera ekoizpen modu afrikarra. Ondoren, ondorioztatzen dute ekoizpen modu honek Afrikako azpigarapena ekarri zuela, Afrikako ekoizpen moduak europako proiektu kapitalistaren menpe gelditu zelako. Kontzeptu honekin erakusten dute Afrikako ekoizpen modu afrikarra funtzionala izan zela europako kapitalismorako.

Azkenik, 3) **EKOIZPEN MODU ETXETIARRA**. Ekoizpen modu etxetiarra historian zehar existitu den ekoizpen modu bat da, lan tradizionalekin lotuta. Etxearen biziraupena bermatu duen ekoizpen modua. Ekoizpen modu hau existitzeaz gain, oso funtzionala izan da beste ekoizpen moduak sortzeko; kapitalismoak, esaterako, ezin izango luke biziraun ekoizpen modu etxetiarrik gabe, azken honek lan asko egiten duelako azpiegitura ekonomiko kapitalistak bizirauteko.

6. Nekazaritza

Nekazaritza eremu traidizionaleko EZAUGARRI NAGUSIAK:

- 1) Ekoizpena **autokontsumora** dago bidertautu eta ez mekatura.
- 2) **Arriskua murrizten** saiatzen den portaera. Ondorioz, errentaren maximizaziorik ez da ematen, ez da portaera kapitalista bat.
- 3) Erreprodukzioa familiarekin lotuta dago, **familiaren erreprodukzioa da helburu nagusia**. Horretarako, araudi bat dago: herentzia... Helburua esplotazioa familiaren bitartez mantentzea baita. Nekazaritza esplotazioak denboran irauteko araudi bat eraikitzen da, esaterako, herentzia sistema bat izatea esplotazioak bizirauteko.
- 4) **Nekazal merkatuak** egon badaude, baina ekonomiaren osagarri moduan. Produktu bakan batzuk elkartrukatzeko dira, ez dira ekonomiaren erdigunea.

7. Ekonomia Morala

Ekonomia moralaren kontzeptua irakurketa etiko batetik abiatzen da. Logika kapitalistaren aurre egiten diona.

Ekonomia moraleaz hitz egitean autore batzuk aipatu daitezke. Kontzeptuaren sorrera historialari britaniar marxista batekin lotuta dago: Thompson. Azken honek kontzeptu hau zientzi historikoetan planteatu zuen. Baina James Scotteke aplikatuko du antropologian.

Scotten planteamendua honakoa da:

Ekonomia morala planteatzean unibertso etiko-moral bat irudikatzen dugu, non balio nagusi batzuk dauden: alde batetik, justizia, eta bestetik, ekitatea (berdintasuna). Bi balio hauek bizirauteko eskubidean oinarrituz.

Ekonomia morala aldarrikatu duten ekonomilari ezberdinek gehienetan ekonomia morala lotu dute **NEKAZARITZA KOMUNITATE TXIKIAREKIN**. Hau da, nekazaritza komunitate txikietan aurkitu daiteke ekonomia morala. Bertan, alde batetik, errentaren maximazioa bilatu beharrean, 1) **aberastasunaren pilaketa ekidin** nahi da. Komunitate hauetan mutuaismoaren printzipioak

ondasunen pilaketa ekiditzen du. Bestetik, 2) **araudi etiko bat** dago, justizia soziala bermatzeko.

Popkinek ekonomia morala irudikatzeko planteamendu bat egin zuen.

Ekonomia morala ulertzeko, alde batetik, bi hausnarketa nagusi kontuan eduki behar ditugu, eta bestetik, bi zutabe horietatik bost oinarri ondorioztatuko genituzke.

Bi hausnarketak hoakoak dira: alde batetik, a) kapitalismoak aurreko instituzio tradizionalak sakonki eraldatu egin ditu eta bestetik, b) aurreko instituzio tradizionalak helburu moralagoak bilatzen zituzten logika kapitalistatik eta merkatu libretik sortutakoak baino.

Hausnarketa honetatik Popkinek ekonomia moralaren bost oinarriak azpimarratzen ditu:

1) **Instituzioen moralitatea**. Moralitatea instituzioari lotuta dago. Moralitatea ez dugu topatzen pertsonengan, nekazariak ez dira beste pertsonabatzuk baino moralagoak berez, gakoa instituzioen moralitatean dago. Nekazairen ekonomia ez da moralagoa, nekazariak etikoagoak direlako, baizik eta haien instituzioak moralagoak direlako, ongizate orokorra bermatzen dutelako.

2) **Komunitatea eta biziraupenaren printzipio etikoa**. etika honek bermatzen du bizitza eta bizitza kalitatea. Gutxi batzuen pilaketa ebitatzen dutelako.

3) **Arriskuaren aurrean**. lehenengoa da gure etikaren barruan segurtasuna. Arriskuaren aurrean lehenengoa segurtasuna. Hobe da gutxi ekoiztea eta seguru, eta ez asko ekoiztea errenta maximizatzeko. Honek azaltzen erresistentzia inobazioari edo merkatuaren aurkako jarrera.

4) **Kritikoa da**. nekazaritza esplotazio tradizionala bizi da errealitate batean ez dago islatuta. feudalismoa dago, jauntxoak (klientelismo) bermatu bizitza eta segurtasuna ematen dizu.

5) **Aldaketaren aurkako erresistentzia**. aldaketak ez dituzte gustuko, lotuta bizitza proiektua arriskuan jartzen dutelako. nahiago jabego komunala, pribatuak merkatu libreran eramaten zaitulako eta arriskuz beterik dagoelako.

8. Kapitalismoa eta lana

Kapitalismoan, lanean eta enpleguan pentsatzean hiru fikzio identifikatu behar dira:

1.Fikzioa: Kapitalismoan zabaltzen den idei nagusietako bat fikzioa dena honakoa da: lana aurkitzeko biderik eraginkorrena, eta batez ere, lan onenak aurkitzeko bidea gaitasun handiak izatea da. Hau da, kapitalismoan gaitasunak eta formakuntza onena duen jendeak lan onena ez du aurkituko.

2.Fikzioa: kapitalismoak bermatzen omen duen enpresen arteko lehiakortasuna ez da existitzen, eta ekonomia gehienetan oligopolioa edo monopolioa ematen da. Ekonomia kapitalistan sektore asko ez dira lehiakorra, enpresa gutxik kontrolatzen dute merkatu osoa.

3.Fikzioa: arrazionaltasun ekonomiak gidatzen du jende guztiaren portaera ekonomikoa. Kapitalismoan gehein nagusitzen den portaera da baina ez da portaera bakarra. Nahiz eta kapitalismoan bizi, topatzen dira beste motatako jarrerak egunerokotasunean, elkarrekikotasuna, boluntariora...

LAN KONTZEPTUAREN HISTORIA

Gizon txuriek modu egonokor batean lana egitea, hau da, lan finko bat izatea bizitza osorako, lan mota hori historian salbuespen bat izan da. Lan hori lehenengo munduko herrialdeetan sortutakoa da, denbora labur batez iraun duen hiru hamarkadetan zehar (50.-80.H). Errealitatean, lanaren historia errealitate anitzago batekin egon da lotuta, jendeak lan mota asko egin ditu historian, batzuk ordainduta beste batzuk ez, eta historia osoari erreparatuta hori izango litzake "normala".

Lan merkatu bakarra ez dago, lan merkatu ezberdinak aurki daitezke, eta horren inguruan teoria ezberdinak daude: MERKATU DUALAREN TEORIA haien artean.

Piore autoreak 70.hamarkadan asmatu zuen merkatu dualaren ideia:

Teoria honen arabera, bi lan merkatu mota daude: a) **lan merkatu primarioa** eta b) **lan merkatu sekundarioa**. Bakoitzak baditu ezaugarri propio bereiztuak.

Lan merkatu primarioa honakoa litzateke: lan baldintza onak, soldata altuak, lan egonokorrak, babesten zaituen sistema legal bat, sindikalizatzeko aukera, baldintzak eta postua hobetzeko aukera...

Bigarren mailako merkatua, ALDIZ: ezegonkortasuna, lan baldintza txarrak, soldata baxuak, enpresan hobetzeko aukerarik ez, babesten zaituen sistema legalik ez. Garai batean merkatu marginala zen, gaur egun zabaldu da eta jende gehiena sartzen da bertan.

Bigarren mailako merkatuaren adibide litzake MCDONALIZAZIO EREDUA eta INMIGRANTEEN LANA

MCDONALIZAZIO EREDUA.

a) *Lehenik*, eredu industrial bat da, estandarizazio prozesu bat. Leku guztietan gauza bera eskeintzen da. Hau da, eskaintzaren homogeineizazioa ematen da. Ekoizten diren produktuak geroz eta homogeneoagoak dira.

b) *Bigarrenik*, kapitalismoaren estrategia berri bat jartzen da martxan lanaren zati bat bezeroaren esku utziz. Bezeroak berak egiten du lana "*Do it your self*"

c) *Hirugarrenik*, antolaketa mota honek eskeintzen duen lana espezializatu gabeakoa da, lan baldintza txarretan. Harreman pertsonalak inpertsonal bihurtzen dira.

Rifikinek LANAREN BUKAERA planteatzen du. Hau da, teknologiaren apikazioak produktibitatea handitzen du, eta honekin batera, lan postuak behera egiten dute. Ondorioz, langabezia gaur egungo sistema ekonomikoaren arazo estruktural bat bezala planteatzen du. Nekazaritzako langileak industriara pasatzeko prozesua, eta ondoren, industriatik zerbitzuetara, mugara iritsi da.

Rifkinek etorkizun itxaropentsua planteatzen du, lan gutxiago eginez lan bolondresa egiteko aukera gehiago eta aisialdirako denbora gehiago egongo delako.

EKONOMIA FORMALA ETA INFORMALA

Ekonomia informalaren kontzeptua Hart izeneko antropologo batek asmatu zuen. Ekonomia informala sistema formaletik kanpo dagoen lana da, hau da, ezaugarri nagusia litzateke sistema legeletik kanpo egitea.

Sistema ekonomikoan lan formala eta informala loturik daude. Izan ere, ekonomia formalak, ekonomia informala behar du eraginkorragoa izateko. Azken batea, formalitatean lan egiten duten enpresa askok zirkuitu informal bat erabiltzen dute kostuak jeisteko, eta lan jarduera efizienteago bat lortzeko. Esaterako, enpresa formal handi asko daude, beste herrialde batzuetako ekonomia informala erabiltzen dutena.

Hala ere, badaude merkatutik kanpo dauden beste jarduera batzuk, eta ekonomian presentzia dutenak. **MERKATUARI AURRE EGITEKO ALTERNATIBAK:**

- 1) Denbora bankuak. Zerbitzuak elkartrukatzen diren erakundeak, lan orduak trukatzen diren tokiak.
- 2) Truke sareak. Zaharra den hori edo aspertuta zauden hori beste batekin trukatzeko aukera, erabilera jarraitzeko. Kapitalismoak inposatzen duen “erosi eta botaren” ideiarekin hausteko.
- 3) Kreditu alternatibak edo banka etikoak. Banka etikoetan debekatuta dago inbertitzea etikatik kanpo kokatzen diren sektoreetan, kredituak proiektu lokalak bultzeteko ematen dituzte...

EKONOMIA ETKNIKOAK

9. Silvia Federici: Revolución en punto cero. Trabajo doméstico, reproducción y luchas feministas.

Silvia Federici esparru kritiko feministan kokatzen da.

Testua bi zutabe nagusitatik abiatzen da:

- 1) Alde batetik, emakumeen lan erreproduktiboaren eta kapitalismoaren arteko lotura.
- 2) Bestetik, marxismoaren kritika, lan erreproduktiboaren garrantzia ez duelako ikusi.

Modu honetan, Silvia Federicik gaur egungo kapitalismo globalean lan erreproduktiboaren inguruko irakurketa kritiko bat egiten du, baita kritika feminista bat Marxi.

MARXISMOARI KRITIKA

Marxen arabera, lan erreproduktiboa litzateke ezinbestekoak diren beste mota batetako lanak langileak bizirauteko. Bizirauteko produktu ezberdinak ekoizten dira, baina berak ez du kontuan hartzen emakumeak etxean egiten dituen lanak. Ideia honetatik abiatzen da Federiciren kritika.

Alde batetik, Federicik Marxi leporatzen dio ezgai izan zela soldatapekoa ez zen lana baloratzeko, batez ere emakumeak egiten zuten lan ordaindu gabea, eta honek kapitalismoaren akumulazioan duen garrantzia. Lan hau kontuan ez hartzea oso larria da, hau kontuan ez hartuta, esplotazioaren dimentsio guztia ez zuelako irudikatu.

Beste aldetik, Federicik esaten du soldataren papera gure arteko harremanak ikertzeko oso garrantzitsua dela. Kapitalismoan soldatak gizarte banaketa sortzen baitu.

Marxen ustez kapitalismoak paper positibo bat jokatu zuen, progresuaren ideia kontuan hartuta, kapitalismoa progresuaren historia horretan ekarpen bat egiten zuen, aurrerapen teknologikoak komunismoa posible izateko. Federicik kritikatu egiten dio ideia hau, kapitalismoak ekarpen progresistatik egin ez duelako, hiru arrazoiengatik, HIRU ARRAZOI KAPITALISMOAREN IZAERA PROGRESISTA UKATZEKO:

1) *Lehenik*, kapitalismoa sortu zenetik bost mende pasa dira, eta komunismora hurbiltzeko baldintza materialak sortu beharrean, **planetaren baliabideak agortzen** ari da.

2) *Bigarrenik*, kapitalismoak langileak arteko kooperazioa bultzatu beharrean, kontrakoa egiten du, **langileen arteko banaketa sortzen** du. Soldapekoen arteko ezberdintasunak eta soldatadun eta gabekoen arteko ezberdintasunak sortuz.

3) *Hirugarrenik*, iraultza antisistema garrantzitsuenetan (Mexikoko iraultza...) **sujeitu iraultzailea ez da langile proletarioa** izan, baizik eta beste batzuk izan dira, ez dira langile industrialak izan: emakumeak, nekazariak...

XXI.mendean Marxismoa iraultza aurrera eramanez ahal izateko tresna izan daitekeela onartzen du, baina erreprodukzioaren papera kontuan hartzen badu.

MARX ETA LAN INDARRAREN ERREPRODUKZIOA

Federiciren ustez, Marxek **lan erreproduktiboa merkantzien kontsumora murriztu** zuen. Hau da, merkantzien kontsumoa zen lan erreproduktiboaren oinarria. Lan indarraren balioa merkantzien balioarekin parekatzen zuen Marxek. Hau da, merkantzien balioak biziraupena ziurtatzeko, hor kokatzen da erreprodukzioaren ideia (janaria, arropa, etxebizitza...).

Langileen erreprodukzioa merkantzien bitartez ikustarazten da, langilea autoerreproduzitzen da merkantziaren bitartez, eta bazterrean uzten du etxeko lana eta honen papera erreprodukzio prozesuan.

Hau guztia goitik-behera kritikatu du Federicik.

Honez gain, Federicik Marxen **ikuspegi teknologizista kritikutzen** du. Honen arabera, teknologiak produkibitatea handitzea dakar eta honen ondorioz, jendearen lan kopurua gutxitzen da, eta horrek jarriko luke komunismoaren oinarri materiala. Gainera kapitalismoak gehiago produzitzeko lan antolakuntza aurreratutago bat lortu zuen, eta hori ere goraiatu zuen Marxek.

Marxek irudikatu zuen solatapeko lan industrialaren ezinbestekoa zela iraultza egiteko, eta gizateriaren emantzipazioa lortzeko. Bada, horrekin lotuta **zientziaren eta teknologiaren idealizazio bat** egongo litzake, hauek biak indar askatzaile hartzeko. Eta hau kritikutzen du Federicik.

Izan ere, modernitatearen hobekuntza guztietan gehiegi sinistu zuen Marxek.

Beste kritika bat lotuta dago **Bigarren Mundu Gerran Marxistak Emakumearen Askapenerako Mugimenduak kontuan ez hartzearekin**. Azken hauek lanaren definizioaren birformulakuntza bat egin zuten, langile klasearen izaera anitzagoa aldarrikatu eta klase borrokaren naturaren inguruko hausnarketa. Baina emakumeak soilik haien erakunde propioak eraikitzen hasi zirenean hasi ziren errekonozituak izaten; momentu horretan hasi ziren ohartzen emakumearen paperaren garrantziaz ezkerreko mugimenduetan.

Marximotik bertatik, teoriko periferikoek ere kritika egin zioten marxismo europarrari, alde batetik, eurozentrismoari eta egindako irakurketa tradizionalari, hau da, subjektu iraultzaile nagusia langile industrialaren delatzen aldarrikatzeari.

EMAKUMEEN IRAULTZA ETXEKO LANAREN AURKA ETA LANAREN, KLASE BORROKAREN, ETA KRISI KAPITALISTAREN BERDEFINIZIO FEMINISTA.

ETXEKO LANAK ikusezin iraun du historian zehar, emakumeen borrokaren bitartez ikustarazi zen arte. Feministek erakutsi zuten lan indarraren erreproduzioak ez zuela soilik behar merkantzien kontsumoa, baizik eta beste lan garrantzitsu asko: janariaren prestaketa, arroparen garbiketa, giza gorputzen zaintza...

Feministek lortu zuten lan erreproduktiboaren eta lan domestikoaren zentralitatea erdigunean kokatzea, eta honekin, marxismoari berari autokritika bat egitea, kategoria marxista klasikoak berdefinitzea eta historiaren ulermena beste modu batez planteatzea.

Teoria feministak erakutsi zuen kapitalismoa ez dela soilik soldatapeko lana, baizik eta askotan doainik egiten den lana. Lan domestikoa desbalarizatu egin da, eta honekin batera, emakumeen posizio soziala.

Horregatik, marxismoak historikoki langileriaren sektore bat txiki bat soilik defendatu du, gizon txuri eta helduaren sektorea, industria handietan lan egiten zuten soldatapekoa.

Baina kapitalismoa zertan oinarritzen den ikusteko lan domestikoaren garrantzia azpimarratuko behar da. Kapitalismoa familia eredu, sexualitate eredu... jakin batzuetan oinarritzen baita. Ondorioz, esfera "pribatua" produkzio harremanen esfera bihurtzen da, eta borroka antikapitalistaren eremu.

Etxeko lanen garrantziaren arira, 70.HAMARKADAKO KRISI KAPITALISTA historikoki onartu den langile borrokarekin lotuta dago, baina baita ere emakumeek lan domestikoaren aurka egindako borrokarekin, eta hegoaldeko lurraldeetako borroka antkolonialekin. Izan ere, emakumeen borroka sistema fordista kolokan jarri ari zuen, eredu erreproduktibo tradizionala baita honen oinarrietako bat.

Modu honetan, 70.hamarkada erdialdean emakumeen borroka iada ez zirenean ikustezinak, NBEak bertan sartu ziren, eta emakumeen eskubideen aldeko aldarrikapena egin zuten. Baina aldarrikapena emakumeen eskubideen aldeko borroka nazioarteko sistema ekonomikoarekin konpatiblea izateko egin zuten: emakumeak lan mundura inkorporatuz, baina kapitalismoaren logika mantenduz.

LAN INDARRAREN KONTZEPTUA, Federicik behin eta berriro erabiltzen duena, feminismoaren sektore batzuk kritikatu egin izan dute, murrizta dela aldarrikatuz, emakumeak ez baitute lan indarra sortzen baizik eta pertsonak. Baina Federicik, aldiz, lan indarraren kontzeptua mantendu behar dela esaten du, garrantzitsua dela.

Kontzeptu hau darabil **kapitalismoan ematen den lan erreproduktiboa kritikatzeko**. Izan ere, kapitalismoan lan erreproduktiboa guztiz lotuta dagoelako kapitalismoak markatzen duen lan antolakuntzarekin, lan domestikoa ez da jarduera libre bat, baizik eta kapitalismoaren produkzio bide bat baino ez, azken hau bizirik mantentzeko.

AKUMULAZIO BEREGITURAKETA	PRIMITIBOA	ETA	ERREPRODUKZIOAREN
--------------------------------------	-------------------	------------	--------------------------

Munduko ekonomia berregituratzeko estrategia ezberdinak erabili izan dira, kapitalismoaren berpizkundea sortu nahian. Federicik erakusten ditu kapitalismoak munduko ekonomiaren berregituraketarako erabili dituen BOST ESTRATEGIAK, kapitalismoaren boterea mantentzeko.

1) *Lehenik*, **lan merkatua zabaltzea**, migrazioekin eta emakumeak sartuz lan merkatuan. Globalizazioa garrantzitsua izan da soldatapeko lana zabaltzeko. Alde batetik, emakume asko sartu dira lan merkatuan, beste aldetik, milaka eta milaka nekazari jabe txiki izatetik soldatepeko langile izatera pasa dira, honez gain, migrazioen fenomeno ere garrantzitsua da, eta beste elementu bat komunismoaren erorketa, sektore publikoan lan egiten zuena sektore kapitalistan lan egitera psatzen da.

2) *Bigarrenik*, **kapitalaren desterritorilizazioa eta ekintza ekonomikoen finantzaketa**. Hau da, kapitala errazago mugitzeko finantza sistema berri bat eraikitzen da iraultza teknologikoari esker, komunikazio eta informazio sektorean, horrek ahalbidetzen du sistema finantziero berri bat sortzea, askoz efizienteago. Ondorioz, gaur egun kapitalaren mugimendua oso oso azkarra da, segunduro dirutza mugitzen da.

3) *Hirugarrenik*, **ongizate estatuaren proiektuaren murrizketa**. Kapitalismoaren hegemoniari indarra eman, eta azken hauen irabazia

handitzeko. Modu honetan, etxera bueltatzen dira leno publikoak ziren lan batzuk.

4) *Laugarrenik*, **baliabide naturalen ustiaketa eta pribatizazioa**,

Laugarren bidea, baliabideen ustiaketa, pribatizazio prozesu gogorra eman da. hirugaren munduko herrialde gehienetan murrizketa programak pairatu ziren gastu publikoa murrizteko. Doikuntza estruktualk eman ziren eta bertako ekonomiak hustutzeko.

Langile kalsearen diskriminalizazioa: AEBetan langile asko kartzelan daude, langileek ia- gratis lan egiteko.

Bukatzeko, hausnarketa borrokaren inguruan: mugimendu berriak sortu direla 90.etik Aurrera, AEB, España...toki ezberdinetan.

LAN ERREPRODUKTIBOA, EMAKUMEAREN LANA ETA GENEROAREN ETA EKONOMIA GLOBALAREN ARTEKO HARREMANA

Eremu domestikoan ez da aurrerapen tenologikorik eman. lan domestikoaren murrizketa nabarmena ez da eman herrialde aberatsetan. aldaketa nagusia, emigranteen eskuetan utzi da. Bestetik, lan domestikoaren esternalizazioa, host, zerbitzu industriaren gorakada (lavanderiak adib).

Azken boladan emakumearen lan jarduera luzatu da hiru faktoreengatik: hospitaleko egunak denborak murriztu, biagrrrenik, lana etxean egiteko aukera zabaldu da eta azkenik, emakumearen lan kop etxetik kanpo handitu da eta hala ere gutxiago kobratzen dute.

bukatzeko, konklusioak: lan erreproduktiboari garrantzia ematea.

10. Banaketa

Banaketa historian zehar hiru modu ezberdinetan eman da, HIRU MODU NAGUSITAN ULERTU DA ONDASUNEN BANAKETA:

1) Elkarrekotasuna 2) Birbanaketa 3) Trukea

1.ELKARREKIKOTASUNA

Antropologia ekonomikoan elkarrekotasuna ikertu duten autore ezberdinak daude: Mauss, Goulner eta Godelier hain artean.

Marcel Mauss

Kronologikoki, Mauss izan zen elkarrekotasuna aztertu zuen lehena: “*Ensayo sobre el don*” liburuan, 1924an. Liburu honetan, ikerketa batzuk egin ondoren, elkarrekotasunaren inguruko hausnarketa batzuk planteatzen ditu.

Modu honetan, Mausek galdera bat egiten dio bere buruari:

Zein da jendearen elkarrekikotasun portaera ulertzeko arrazoia? Zerbait oparitzen denean zergatik dakigu beste zerbait etorriko zaigula bueltan?

Galdera honi ernatzunez, alde batetik, ikuspegi kolektibo bat adierazten du elkarrekikotasuna ulertzeko. Hau da, Mausek argi uzten du galdera hori ulertzeko ez zaiola erreparatu behar norbanakoaren jokabideari, baizik eta kolektiboari, araua kolektiboan txertatuta baitago. Gauzak oparitu eta gero itzuli egiten dira kolektibitatearen jarrera hori delako, eta ez norbanakoarena. Azken batean, **kolektibitateak behartzen zaitu jasotakoa itzultzera.**

Beste aldetik, Mausek ikusten du mundu mailan badagoela oinarrizko printzipio bat elkarrekikotasun hori aurrera eramatera behartzen zaituena: *ematea, jasotzea eta itzultzea* **oinarrizko printzipio gizatiar unibertsala** da.

Hirugarrenik, elkarrekikotasun printzipioa giza psikean txertatuta egoteaz gain, elkarrekikotasuna **ez da ematen ondasunek duten balioagatik, baizik eta beste mota batetako helburuak lortzeko**: aliantzak egin, elkaratasuna bultzatu edo sozializatzeko. Hau da, elkarrekikotasunaren helburua ez da materiala, baizik eta kolektiboen arteko aliantzak sortzea, elkartasuna bultzatzea edo gizarte harremanak sendotzea.

Gouldner

Gouldnerrek elkarrekikotasunaren inguruan egindako ikerketa 1972koa da. Bere ikerketetaik ateratako ondorio nagusia honakoa izan zen: **elkarrekikotasuna balio moral unibertsala da.**

Elkarrekikotasuna ikuspegi orokor batetik ikertu zuen, eta ikusi zuen toki guztietan aurkitzen dela eta moralari lotuta dagoela. Hau da, errealitateak besteak laguntzera behartzen gaitu, oinarrizko balio moralak gizarte guztietan.

Godelier

Godelierrek egindako ikerketetan BI IDEIA NAGUSI aipa daitezke:

Alde batetik, elkarrekikotasuna ez da ulertu behar gauzak itzultzearen ideiarekin, baizik eta zorraren ideiarekin. Hau da, elkarrekikotasunean zerbait eman, jaso eta itzuli egiten dela ematen du, BAINA horren ordean, gauza berriak emanez zor berriak sortzen dira. Izan ere, itzultze huts bat balitz harremana bertan bukatuko litzake, horregatik elkarrekikotasuna zerbait luzeagoa eta sakonagoa da, zor berriak sortzen baititu etengabe. Zerbait eman eta itzuli egiten digutenean, berriro ere zorpetuta gelditzen gara.

Beste aldetik, elkarrekikotasunarean donatzen diren objektuak hiru taldetan sailkatu zituen, HIRU ONDASUN MOTA: 1) arruntak 2) preziatuak eta 3) sakratuak. Sakratuak ez dira elkarrekikotasun harremanean sartzen; arruntak normaltasunean mugitzen diren objektuak dira, truke harremanetan sartzen direnak; preziatuak donatzen diren objektuak dira, elkarrekikotasunaren pisu handiagoa duten objektuak.

2.BIRBANAKETA

Ondasunak mugitzeko bigarren modua.

Birbanaketaz **Karl Polanyik** hitz egin zuen gehienbat, eta definizio zehatz bat eman zuen: birbanaketa da ondasunak zentralizatzen dituen instituzio batera egitea transferentzia, eta ondoren, instituzio horrek jasotakoa berriro banatzea. Beraz, birbanaketan BI PAUSU daude:

Lehenik, ondasunen transferentzia zentro batera

Bigarrenik, zentroak jasotakoa banatzea.

Polanyi **elkarrekikotasuna, birbanaketa eta trukea ezberdintzen** saiatu zen. Bere arabera, hiru modu hauek ondasunak banatzeko bideak dira ekonomian, eta banaketa mota bakoitzak gizarte mota jakin batekin lotu zuen:

Elkarrekikotasuna ehiztari biltzaileekin, “gizarte sinpleekin”; birbanaketa estatu primitiboekin; eta trukea merkatu ekonomia duten gizarte modernoekin.

Hala ere, onartzen du gizarte guztietan ematen direla hiru banaketa moduak bat nagusitzen den arren. Esaterako, gure gizarteetan dominantea trukea da, baina elkarrekikotasuna eta birbanaketa ez dira desagertzen.

Birbanaketari dagokionez, HISTORIAN BI BIRBANAKETA MOTA bereizten ditu: A) **berdinzalea** eta B) **estratifikatua**.

Lehenengo motan, banaketaz arduratzen den zentruak edo instituzioak ez du ezer irabazten lan horretatik, gainera ez du berak aukeratzen paper hori, eta banaketa berdinzalea egiten du. Hau da, berdintasunean oinarritzen diren birbanaketa ereduetan, alde bateik, birbanaketa egiten duen zentruak ez du etekin berezirik ateratzen birbanaketa horretatik, eta bestetik, banaketa bera nahiko berdinzalea izaten da.

Bigarrenean, aldiz, banaketaz arduratzen den zentrua edo instituzioa aberasteaz gain, egiten duen banaketa hierarkikoa da, birbanaketa ezberdindua ematen da, zaren klase, sexu...en arabera.

3.TRUKEA

Trukea bi objektu gurutzatzean datza, batak besteari zerbait ematen dio eta momentuan itzultzean da. Trukea historikoki beti eman da, baina garrantzi ezberdinak izan ditu, eta modu ezberdinean eman da: merkataritza, merkatua.

Lehenik, MERKATARITZA ETA PORTU KOMERTZIALEKIN lotzen da trukea.

Hasiera batean portu komertzialak hiri jakin batzuekin lotzen ziren, eta oso garrantzitsuak izan dira. Modu honetan, portu komertzial horiek **trukean oinarritzen ziren**, baina hiritik kanpoko gainerako guztiak beste modu batean bizi ziren. Portu komertzialaren ideia bidaiarekin lotuta dago, itsasontzia portu batetik bestera bidaiatzen dute trukeak egiteko. Beraz, **enklabearen ideia** ematen da, hau da, trukea gune jakin batean ematen da, eta gainontzekoan beste bide batzuk (elkarrekikotasuna, autokontsumoa...) ematen dira.

Bestetik, trukea MERKATUAREN INSTITUZIOAREKIN lotzen da.

Polanyik planteatzen du merkatuak historian betidanik egon direla, baina hauen zentralitatea zerbait oso berria dela. Beraz, merkatuaren papera, garrantzia eta funtzioa ezberdina izan da momentu historikoaren eta gizartearen arabera.

Bohannan eta Daltonek 1965.urtean Afrikan egin zuten lana, eta ondorioztatu zuten Afrikako historian merkatuari dagokionez HIRU GIZARTE MOTA egon direla:

- 1) Merkatu gabeko gizarteak
- 2) Merkatu periferikoak dituzten gizarteak
- 3) Merkatu gizarteak

Hiru gizarte hauetan merkatua da irizpidea gizarteak ulertzeko, baina bere presentzia ezberdina da, eta sailkapen hau munduaren historiari aplikatu da.

LEHENENGO GIZARTETAN **ez dago merkatu** instituzio gisa. Gizarte hauetan merkatuak ez du inolako presentziarik, eta harreman ekonomikoak bideratzen dituzten beste logika batzuk daude: elkarrekotasuna, autokontsumoa...

BIGARRENETAN **merkatua instituzio periferikoa** da, jendeak bizirauteko ez du merkatuaren beharrik. Horrelako gizarteetan **merkatu lokalak** topatzen dira, ez dago merkatu nazionalik. Merkatu lokal horien ezaugarriak hiru dira:

Alde batetik, merkatuak ez dira ezinbestekoak bizirauteko. Bestetik, prezioak ez dira eskari-eskaintza legean oinarritzen, baizik eta beste mota batetako printzipioetan: ahaidetasuna, erlijioa... Azkenik, merkatuak beste mota batetako funtzioa betetzen ditu truekeaz gain, funtzio politikoak, erlijiosoak... Esaterako, merkatuak harreman sozialak egiteko balio du, edo negozio politikoak egiteko.

Adibidetzat Inka gizarteko merkatuak daude. Inken zibilizazioan merkatuak ez ziren merkatu libreak, baizik eta merkatu zuzenduak. Elite politiko erlijiosoak merkatuaren funtzionamendua zehazten zuten. Esaterako, prezioak alde aurretik markatuta zeuden. Jabetza eskubideak ere mugatuta zeuden estamentuaren arabera. Gizarte hauetan merkatuak truke funtzioa betetzen dute, baina horietaz haratago beste funtzio batzuk ere.

HIRUGARRENEAN, merkatu gizarteetan, **merkatua instituzio dominantea** da, eta ezin da merkatu gabeko edo merkatutik kanpo bizi. Hemen ere hiru printzipio aipatu behar dira gizarte hauek ulertzeko: a) merkatua beharrezkoa da bizirauteko, b) prezioa eskari-eskaintza legeak zehazten du, eta c) prezio eta ekoizpenaren arteko harreman zuzena dago, merkatu prezioek ekoizpenaren erabakia determinatzen dute.

MONETA

Moneta gaur egun IKUSPEGI NEOKLASIKOAREKIN lotzen dugu. Ikuspegi neoklasikoan honakoa hau da moneta: **aberastasuna pilotzeko instrumentu bat eta truke komertzialerako bidea.**

Neoklasikoentzat a) **moneta aktore autonomo** bat bihurtzen da, nolabait merkatuaren logika markatzen duena. Hainbeste garrantzi hartzen du monetak merkatu ekonomian, beste merkantzia bat bihurtzen dela. Printzipioz moneta merkatiak lortzeko bitarteko bat litzake, baina kapitalismoan b) **moneta bera merkantzia** bihurtzen da. Dirua bihurtzen da merkantzia, dirua baita helburu, ondorioz, c) **merkantzien bitartez dirua loru nahi da eta ez alderantziz**. Diruaren izaera aldatzen da. Horregatik handitzen da hainbeste monetaren garrantzia.

Monetaren inguruan ANTROPOLOGIAREN EKARPENA honakoa izan da. Monetaren izaerari dagokionez, antropologia ekonomikoak HIRU EKAPEN NAGUSI egin ditu.

Lehenik, antropologia ekonomikoak esaten du moneta ez dela bide bakarra izan historian zehar lana ordaintzeko. Ordaintzeko bitarteko asko egon dira historian, moneta izan da bat, baina beste asko egon dira. Esaterako, erromatar garaian gatza erabiltzen zuten ordaintzeko, eta gaztelerazko salario hortik datarkio.

Bigarren ekarpen bat litzateke identifikatzea moneta ezberdinak egon direla merkatu ekonomiatik kanpo. Hau da, antropologoek argitu dute monetak egon direla merkatu ekonomiatatik kanpo, gizarte ezberdinetan.

Hirugarrenik, aurrekoarekin lotuz, monetak funtzio ezberdinak izan dituztela azaleratzen dute: politikoak, erlijiosoak, prestigioa lortzeko...

11. David Harvey: *Breve historia del neoliberalismo*

Kapitalismoa sistema ekonomiko zaharra da eta sistema horrek fase ezberdinak izan ditu, eredu ekonomiko ezberdinak, horietako bat da neoliberalismoa, keynessianismoa bezala.

NEOLIBERALISMOAREN DEFINIZIOA

Kapitalismoaren barruan garatzen den eredu ekonomikoa da Neoliberalismoa. Hala ere, eredu ekonomikoa izateaz gain, neoliberalismoa proiektu integral bat da, adierazle ekonomikoak, politikoak, ideologikoak, kulturalak... dituelako, ez da eredu ekonomiko hutsa.

EREDU EKONOMIKO gisa definituz, neoliberalismoan merkatu libre da nagusi. Estatuaren paper ekonomikoa ahalik eta gehien mugatzen da, nahiz eta azken honen paper politikoa oso garrantzitsua den neoliberalismoan, elite klasea defendatu behar duelako. Honekin batera, neoliberalismoan enpresa pribatu kapitalisten askatasunaren aldarrikapena egiten da. Modu honetan, estatuak enpresen askatasunak bermatu behar ditu, jabetza pribatua, kontzeptu juridiko-politikoa, babestuz. Jabetza pribatuaren eskubideak defendatzen dira. Azkenik, neoliberalismoak pribatizazioa sektore askotara zabaltzen du, bai zerbitzu industrialetara, bai zerbitzu sozialetara ere (hezkuntza, ura...).

NEOLIBERALISMOAREN APLIKAZIOA

Neoliberalismoa 70.hamarkadan aplikatu zen. Hamarkada honetan mundu mailan baldintzak aldatzen hasten dira (krisi ekonomikoa, herrialde sozialisten mugak...), eta proiektu neoliberalak hasteko saiakerak egiten dira, bi esparru geografikotan eta BI BIDE EZBERDINETATIK:

Alde batetik, Amerikan Latinan Chilen 1973an, bestetik, **Britania Handian eta AEBetan** 1979an. Lehenengoan indarkeria klasikoaren bitartez ezartzen da eredu ekonomiko berria, diktadurak erabilzten dira neoliberalismoaren proiektua aurrera eraman ahal izateko; bigarrenetan, aldiz, erregimen liberalak ezartzen dira bide demokratikoen bidez, onspen politikoa eraikiz, jendea proiektu honetara hurbilduz.

Bigarren bide honetan, ONESPEN POLITIKOAREN ERAIKUNTZA bideragarria izateko oso garrantzitsua izango da zentzu komunari ekitea. Proiektu hauek **zentzu komuna** eraldatu zuten, gizartearen gehiengoak normalizat eta ontzat zuen aldatu egin zuten, gizartearen onspen politikoa lortzeko. Zentzu komuna MODU ASKOTAN lortu zuten aldatzea:

Alde batetik, neoliberalismoak 1) gizartearen **agente prestigiosoak** bereganatu zituen (intelektualak, komunikabideak, hezkuntza, eliza, *think-tank* (pentsamendua sortzen den lekua, eta zabaltzen saiatzen dena)...), haien bidez jendearengana ideia neoliberalak iristeko, modu honetan, zentzu komuna aldatu eta gehiengoaren onspena lortzeko. Honez gain, neoliberalismoak zentzu komuna eraikitzeke, jendeak neoliberalismoa defendatzeko, 2) **tradizioak eta balio kulturalak** erabiltzen ditu. Beste elementu bat onspena eraikitzeari begira, 3) **askatsuna** aldarrikatzea izango da, betse eredu ekonomikoak askatasuna babesten ez dutela esanez.

AEB-ETAKO KASUA

AEBetako ereduan Reaganen gobernuak neoliberalismoa zabaltzeko hainbat neurri hartu zituen: sindikalismoaren suntsipena, bankuen erabilera zorra sortzeko...

Modu honetan, 70.hamarkadan alderdi errepublikarrak, oso paper garrantzitsua jokatu zuen ideia neoliberalak zabaltzeko. Partiduaren oinarri elektoralak zabaltzeko, eta langile klaseetara heltzeko, erlijioaz baliatu ziren, eta alianatza bat sortu zuten eliza kristau eskuindarrarekin. Horrela, enpresa handi, kristau kontserbadore eta partido errepublikarraren artean aliantza handi bat sortzen da, jende askorengana iritsiz.

Honekin lotuta, partido errepublikarrak nazionalismo kulturala erabili zuen bere proiektua indartzeko, eta langile klase txurira ailegatzeko, arrazismoaren, homofobiaren... aurreiritziak erabiliz.

BRITANIA HANDIKO KASUA

Ingalaterran etxebizitza publikoaren garrantzia onartuta zegoen jendearen artean, zentzu komunaren barruan zegoen ideia hura. Horregatik, Margaet

Tacherrek hori aldarazi zuen, langileak konbentzitu hobe dela jabea izatea. Jabetza pribatuaren aldeko diskurtsoa eraikitzen zuen etengabe, eta azkenean eragina izan zuen jendearengan. Jokaldi ideologiko interesgarri bat burutu zuten langile klaseari erakusteko jabe bihurtzean beste klase batera pasa daitekeela, klase ertainera, prestigiduna.

Balio berriak sortzea eta hegemoniko bihurtzea oso garrantzitsua izan zen neoliberalismoa zabaltzeko: jabetza pribatua, kontsumismoa, askatasun indibiduala...

Beste elementu bat oso garrantzitsua neoliberalismoa txertatzeko izan zen nazionalismoa. Izan ere, 80.hamarkadan, Malbinetako gerra oso ongi etorri zitzairen, herrialdean bizi zuten arazo handi bat alde batera uzteko: meategietako krisia. Meatzarien kontrako apustu gogor bat egin zuten, eta mugimendu sindikal potenteena ahultzea lortu zuten.

BUKATZEKO, bai AEBetan, bai BHan, neoliberalismoa ezarri zuten partiduak, (Teacher eta Reagan) haien boterea galdu bazuten ere, pentsamendu minoritario bat hegemoniko bihurtzea lortu zuten, ondoren iritsi ziren gainontzeko partiduak, Tony Blair eta Clinton, ordu arteko politikak mantendu zituzten, eta neoliberalismoak bere bidea jarraitu zuen.

ESTATU NEOLIBERALA

Estatu Neoliberal **TEORIAN** litzateke instituzio politiko bat merkatu librea bermatu, eta jabetza pribatua eta askatasun indibiduala babesten dituen.

Honekin batera, neoliberalismoan lehiakortasuna bertute esentzia bat da, ondorioz, estatuak ere neoliberalak lehiakorrek behar dute izan. Nazioarteko hitzarmenak merkataritza librea bultzatu duutenak sinatuz lortzen da, lehiakorragoak izatea lortzeko, aberastasun gehiago sortzeko... Mundu mailan proiektu neoliberalak aurreritateko, ezinbestekoa da merkataritza libreko akordioak egitea estatuen artean.

Estatuaz haratago, bi ideia nagusi:

1) Neoliberalismoan arrakasta eta porrotaren ideia erantzunkizunarekin duade loturik. Bakoitza da bere bizitzaren erantzule, eta gertatzen zaizun guztia zuk aldatu dezakezu, beraz, norbanakoarengan uzten da erantzukizun guztia, bai porrota bai arrakasta. Arazo estruktural eta sistemikoak ezkututzen dira modu honetan.

2) Demokraziaren inguruan teoriko neoliberalak arriskutsu kontsideratzen dituzte, eta honen aurrean, adituen gobernuak proposatzen dituzte, teknokraziak plantetazen dituzte, ekonomia desideologizatzen.

Neoliberalak estatuen eskuhartzea mugatzea eskatzen dute, baina era berean, nazioarteko erakundeek (FMI) ekonomia globalean partehartzea eskatzen dute.

Estatu neoliberal **PRAKTIKAN** kontraesan askotan erortzen da.

Teorian planteatzen dena, praktikan estatu neoliberalak ez du egiten agindutakoa. Aldagai ezberdinak daude hori demostratzen dutenak:

1) Estatu neoliberalak askatasun indibiduala defendatu behar du, BAINA praktikan askatasunak beste interes batzuegatik mugatu egiten dira beharrezkoa denean. *Askatasunak mugatu askatasunaren izenean* (Esaterako, segurtasunaren izenean askatasuna asko mugatzen da.)

2) Estatu neoliberalak merkatu libre bermatu behar du, lehiakortasuna, teorian, BAINA praktikan oligopolio eta monopolioak sortzeko joera dago, enpresa gutxi batzuk kontrolatzen dute merkatu bat.

3) Estatu neoliberalak ez du esku hartu behar erabaki ekonomikoetan, enpresek erregulatu behar dute ekonomia, BAINA praktikan gobernu neoliberalenak ere estatuaz baliatu dira protekzionismoaren bitartez haien enpresak babesteko.

4) Estatu neoliberalak ez du parte hartu behar sistema finantzieroa, BAINA estatua askotan agertzen da enpresa pribatuen zorrak babesten, estatuak askotan babesten ditu porrotean erortzen diren bankuak.

6) Estatu neoliberalak praktikan lan baldintzak asko aldatu ditu, batez ere, lan babesa murrizteko: soldadak jetsi... Gizarte politiketan ere helburua murrizketak egitea da.

7) Estatu neoliberalak paper kohertzitiboa izan dezake elitearen interesak babesteko. Estatu neoliberalak errepresioa erabiltzen du klase dominantearen interesak defendatzeko.

8) Etengabe aldarrikatzen da askatasuna, BAINA gero jende askoren askatasuna mugatzen da jendearen aurkako errepresioa erabiltzen denean.

NEOKONTSERBADORISMOA

Neokontserbadorismoaren eta neoliberalismoaren arteko ezberdintasuna bi arlotan ematen da nagusiki:

1) Alde batetik, lehenak ordenaren garrantzia azpimarratzen dute, eta askatasuna mugatzen dute ordenaren izenean, ordena bai barruan, bai kanpoan. Aldiz, neoliberalak askatasuna aldarrikatzen dute etengabe.

2) Beste aldetik, lehenak moralitate hiperkontserbadorea dute, bigarrenak ez bezala.

DESJABETZEAREN BITARTEZ AKUMULAZIO KAPITALISTA

Irakurketa hau oso famatua bihurtu da, eta interesgarria da Harveyk egiten duen planteamendua.

Marxek bazuen antzeko kontzeptu bat *akumulazio originarioa*, hau da, lehenengo akumulazio kapitalista historian Marxen ustez lur komunalak privatizatuz eman zen. Harvey ikusipegi neomarxista batetik abiatua, akumulazioaren kontzeptu hori hartu eta gaur egungo egoerara egokitzen du.

Gaur egun akumulazioa, kapitalaren metaketa, desjabetzeen bitartez ematen da, eta lau bide nagusi daude desjabetzeak burutzeko:

1) Pribatizazioa eta merkantilizazioa. Zerbitzu publiko asko merkantzia bihurtu dira, errentagarritasunaren logikaren barruan sartu dira, eta eskubide bat izatekin merkantzia bat izatera pasa dira (osasungintza, hezkuntza, natura, gerrak...).

2) Finanziarizazioa. Egun ekonomia produktiboak garrantzia galdu du eta garrantzi gehiago hartu du ekonomia finantziario espekulatiboak. Sistema finantziarioa gizartearen gehiengoari dirua kentzeko erabiltzen da, eta bidea espekulazioa eta iruzurra da. *Ponzi* sistemaren bitartez, aberastasuna artifizialki asmatzen da, diru birtuala irudikatuz.

3) Zorraren tranpa eta krisien manipulazioa. Diru publiko pila bat bideratzen da zor publikoa pagatzeko.

4) Birbanaketa estatalak. Pobreengandik aberatsenengana aberastasuna bideratzeko modu ezberdinak erabiltzen dira: murrizketa sozialak, eta batez ere, erreforma tributarioak, hau da, enpresa handiei zergak jeistea eta kontsumitzaileei BEZa igotzea.

12. Antopologia eta kontsumoa

Kontsumoa ulertzeko hiru ikuspegi teoriko: kulturalista, prozesu soziala eta materialista.

Hiru ikuspegi hauetan nabarmentzen da kultura, egitura soziala eta materiala. Haien artean oso lotuta daude hala ere.

1) IKUSPEGI KULTURALISTA

Ikuspegi kulturalista ulertzeko elementu batzuk azpimarratu behar dira, hiru elementu nagusi.

Alde batetik, azpimarratzen du kontsumoari dagokionez nortasuna edo **identitatea adierazten dela kontsumoaren bitartez**. Ondasun baten edo beste baten kontsumoak adierazten du pertsona horren nortasuna eta aldi berean, baliagarria da gizarte taldeak ezberdintzeko. Hau da, kontsumoak adierazten du zer identitate dugun eta zein taldetan gauden.

Bestetik, ideologia funtsezkoa da kontsumoa ulertzeko. Izan ere, **gure ideologiak neurri handi batean baldintzatzen ditu gure nahiak eta "beharrak"**.

Azkenik, kontsumoa hautu arrazional bat dela onartzen da, baina hori baino gehiago dela, **kontsumoa komunikatzeko bitarteko bat da**. Ereku sozialean kokatzen du norbanakoa kontsumoak, hau da, kontsumitzen dugunaren arabera mezu bat bidaltzen dugu, eta mezu horren arabera gure burua kokatzen dugu ereku sozialean modu batez edo bestez.

FRANTZIAKO TEORIA ESTRUKTURALISTAK planteamednu honetan eragin handia izan du. Izan ere, azken honek harreman bat adierazten du merkantzien eta ideologiaren artean. Hau da, estrukturalismo frantziarrak esaten zuen merkantziak ideologia bat kodifikatzen dutela. Honez gain, kontsumoak oso informazio aberasgarria adierazten duela kontsumitzailearen nortasunaren inguruan, kontsumoak etengabe ezaugarritzen gaituelako.

Hainbat autore aipa daitezke: SHALINS, MACCRAKEN.

Shalinsek ikerketa bat egin zuen erabiltzen den arropa motaren inguruan. Berak planteatzen zuen arropa motaren erabilerak adierazten duela zein taldetan ibiltzen garen.

MacCrakenek esaten zuen pobreak, gizarte klase bajuak, nola saiatzen diren etengabe imitatzen goi estratuen modak, janzkerak... Eta aldi berean, goi estratuak aldentzen saiatzen dira.

2) PROZESU SOZIALAREN IKUSPEGIA

Bi autore aipatzen dira ikuspegi honeta: DOUGLAS ETA ISHERWOOD. Autore hauek 79.urtean planteatu zuten kontsumoa ikertzen dugunean ezin gara mugatu soilik norbanakoaren portaera ikertzera, baizik eta eremu sozialera eramane behar dugula. Beraz, kontsumoa lotuta dago norbanakoaren portaerarekin, baina horretaz gain, kontsumoa eremu sozial osoan ulertu behar da, non taldeak daude, agenet sozial ezberdinak dauden, non prozesu sozial ezberdinak ematen diren, egitura sozial ezberdinak dauden...

MASA KONTSUMOA ETA KAPITALISMOA.

Autore hauen arabera, **Masa kontsumoak kapitalismoaren logika islatzen du**, momentu bakoitzean kapitalismoak duen logika eta filosofia masa kontsumoan adierazten da. Segun eta nolako kapitalismoa izan, masa kontsumoa mota batekoa edo beste batekoa izango da.

Beste aldetik, planteatzen dute **kapitalismoak sortzen duela artifizialki eskari bat marketingaren eta propagandaren bidez**. Kapitalismoak marketingaren bidez existitzen ez diren beharrak sortzen ditu.

Azken hamarkadetan, kapitalismoak nola lortu duen produktu batzuk goi klasekoekin lortuta zeudenak popularizatzea eta herrikoi bihurtzea. Esaterako, ontziteriak.

Kontsumitzaileak ez dira burujabeka kapitalismoan, enperesaria badutelako makineria oso eraginkorra produktu batzuen kontsumoa indultzeko.

KLASE ABERATS ALFERRAREN TEORIA: **Thorstein Veblenek**

Veblenek egiten duen irakurketa historikoa interesgarria da. Klase mota hau, klase aberast alfer hau, oso lotuta dago jabego pribatuarekin, eta betz ere, gizarte insutrialaren garapenarekin. Hauek biak klase abertas alferraren agerpena ahalbidetzen dute.

Klase abertas alferra ulertzeko jabego pribatua hartu behar dugu kontuan, jabego pribatuaren metaketa eta jabetzaren adierezpena handinahiez.

Klase honen helburu nagusia da jabetza metatzea eta aberastasuna metatzea, baina arrakastua izateko gizartean. Arrakasta jabetza pribatua metatuz lortzen dute, baina honekin batera erakusten arrokeriaz. Horretaz gain, helburua litzateke etengabe hobetzea zure posizioa gizartean eta estima irabaztea jabetza pilatuz eta jabetza hori erakutsiz arrokeriaz. Finean, Veblenek esaten du elitearen barruan estima eta errespetua izateko, ez da nahikoa edukitzea, ezinbestekoa da exhibizioa, erakustea modu arrotan.

Bukatzeko, Veblenek esaten du arrokeriaz egiten den kontsumo eta erakusketa hau, goi klaseek egite dute, baina aldi berean, behe klaseak saiatzen dira errepikatzen eta jarraitzen, emulazioa ematen da.

HABITUSA, GUSTUA ETA BEREIZKETAREN TEORIA: **Bordieu**

Bordieuk bizimoduaren inguruko ikerketa bat egin zuen. Bere hipotesia zen bizimodua eta gizarte klasearen arteko lotura erabat zuzena dagoela. Bakoitzaren gustua oso determinatuta dago bakoitzaren kokapen sozialaren arabera.

Bordieuren teoriaren arabera, behe klaseek baloratzen omen dute kontsumo objektuaren berehalakotasuna, hau da, momentu horretan bertan ematen dizun baliogarritasun materiala. Eta goi klaseek aldiz, kontsumo objektuaren sofistikazioa eta eskaintzen duen elementu erreflexiboa baloratzen omen dute. Behe klaseak materialistagoak lirateke, eta goi klasekoak intelektualistagoak.

Honen inguruan, beste hainbat autorek ikertu dute, haien artean CHAN ETA GOLDTHROPE.

Alde batetik, hasiera batean planteatu zuten homologiaren argudioa. Argudio honen arabera, goi klaseak kontsumitzen dute goi kultura eta behe klaseak herri kultura.

Wilenskyk Chan eta Goldthropek ikerketa hori egin ondoren, homologiaren ikuspegia kritikatu zuen. Esan zuen goi klaseek goi kultura kontsumitzen dutela, baina ez dutela uzten herri kultura kontsumitzeaz.

Chan eta Goldthropek gustu musikalaren inguruan ikerketa bat egin zuten. Gustu musikala ez dago soilik lotuta klasearekin, baizik eta estatusarekin. Estatusa planteatzen denean, planteatzen da batez ere formakuntza. Hau da, formakuntzaren arabera gustu musikalak aldatzen dira. Hau da, behe mailakoa bazara baina zure formakuntza hobea bada, zure gustu musikala ezberdina izango da.

3) IKUSPEGI MATERIALISTA

Bi autore nagusi: Fine eta Lepold. 90.hamarkadan bi autore hauek ikerketa bat egin zuten: "the world of consumption". Ikuspegi materialista batetik abiatutako kontsumoaren inguruko ikerketa.

Planetamendua:

Nozio nagusi bat planteatu zuten: hornikuntzarako bitartekoak. Honen bidez, haien helburua nagusia zen ulertzea eta ulertarztea nola iristen diren merkantzia kontsumitzaileengana.

Alde batetik, ondorioztatu zuten kontsumoa ez dela soilik merkantzien kontsumoa, baizik eta kontuan hartu behar dela autoekoizpena, estatuaren zerbitzuak... Hau da, kontsumitzen ditugu produktuak eta, era berean, zerbitzuak.

Beste aldetik, kontsumoari lotuta daude produktuak, eta produktuen atzean dauden prozesu sozial batzuk.

Idea nagusia: irakurketa politiko-ekonomikoa: kontsumoa ulertzeko kontuan hartu behar ditugu hainbat aldagai: 1) ekoizpen harremanak eta 2) egitura politikoak. Hau da, kontsumoa ezin da errealitatek kanpo atera eta bakarrik ikusi prozesu indibiduala balitz bezala, baizik eta kontsumoa ulertzeko honi erreparatu behar zaio, ekoizpen harremanei eta egitura politikoei, hauen bien arabera, kontsumoa ezberdina izango baita.

Aldarrikatzen dute kontsumoa prozesu bat dela, eta ezin dela isolatu dominazio harremanetatik. Hau da, dominazio harremanak eta kontsumo harremanak lotuta daude. Beraz, dominazio harremanei errepertu behar diregu benetan ulertzeko kontsumoa nolakoa den gizartean.

13.Merkatua. Luis Buendía García: ¿Como se concreta la dictadura de los mercados?

Testu hoetan autorea saiutzen da azaltzen zertan datzan merkaturen diktadura, hau da, nola lortu duten merkatuek hainbesteko boterea estatuak menpean izateko.

Nola lortu dute merkatuek estatuak menpean hartzea eta erabat subordinatzea?

Horretarako irakurketa historiko bat egiten du, eta irakurketa historiko hori abiatzen da estatuaren sarrera ekonomikoa nondik datozen ulertuz. Izan ere, estatuak dirua behar du zerbitzuak finantzatzeko, eta diru sarrera hauek hainbat bidetatik iritsi daiteke. Historikoki kapitalismoaren barruan ESTATUAK HIRU MODUTAN LORTU DITU DIRU SARRERAK:

1) Lehenik, ENPRESA PUBLIKOEN IRABAZIAK. Hau da, estatuaren enpresak lortzen dituen irabaziak. 60-70.hamarkadan estatuak enpresa publiko asko zituen, siderurgian, telefonian... Estatuak enpresa publikoak zituen eta errentagarriak ziren, eta diru asko lortzen zuen hortik. Baina momentu batean enpresa hauen **pribatizazioa** eman zen; enpresa publiko errentagarriak saldu ziren eta mekanismo asko egon ziren hau justifikatzeko (enpresa pribatua kalitatezkoagoa dela...), sare garrantzitsu bat egon da justifikatzeko ekonomikoki justifikaezina zen hori. Enpresa publikoak pribatizatu zirenean hasieran dirutza lortu zen, baina urte batzuetan sarrera horiek desagertu egin dira. **Estatuaren diru sarrerak murriztu ziren nabarmen enpresa publikoak pribatizatu egin zirelako.**

2) Bigarrenik, beste diru sarrera garrantzitsu bat ZERGAK izan dira. Zergak bi izan dira historikoki nagusiki: **langileen errenta aitorpena** eta **enpresen zergak**. Neoliberalismoaren batera, zerga ahuetan aldaketa sakona eman da, zerga maila jeisteko. Azken 35 urte hauetan geroz eta diru guxtiago jasotzen du estatuak zergen bitartez, zergatik? Neoliberalismoak zentzu komuna eraiki

duelako, non zergak jetsiz ekonomia dinamizatzen den, eta zergak ordaintzea txarra dela onartu den. Gainera langileen zergak geroz eta handiagoak izan dira, eta enpresena jetsi egin da. BEZa ere neoliberalismoaren asmakizun bat izan da, zerga inprogresibo bat, berdin du nolakoa den zure aberastasuna berdina pagatzen duzula. Ondorioz, langileen zergetan eta BEZean sostengatzen dira zerbitzu publiko gehienak.

3) Hirugarrenik, ZORRAREN EMISIOA. Aurreko diru sarrerekin nahiko ez, eta azken urteetan estatua zorpetu egin da, zerbitzu publikoak mantentzeko eta bizi kalitatea mantentzeko, baina zor hori lehertu den arte. Banku pribatu handiek estatuaren bonoak erosten dituzte eta negozio honekin aberastu egiten dira, eta estatua betirako zorpetu egiten da. Banku pribatu batek dirua lortzen du europako banku zentraletik, ia interesik gabe, baina gero saltzen dio estatuari interes altuetan. Kontua da, denbora pasa ahala zorraren tamaina handitzen dena ordaindu beharreko inetresak oso altuak direlako, eta nahiz eta interesak pagatu, zorraren kopurua ez da jeisten. Kalifikazio agentziak kalifikatzen dute estatuaren funtzionamendu ekonomikoa, estatu hori fidagarria den ikusteko, eta haiek esaten dutenaren arabera interes atsa altuagoak edo txikiagoak pagatuko dira. Horregatik, baduade estatu batzuk interes maila oso altua dutenak, eta zorra ordaindu ezin dutenak. Beraz, zorra mantentzen da eta soilik interesak pagatzen dituzu.

Honek guztiak azaltzen du zer nolako egoeretan gauden, geroz eta diru gutxiago sartu, eta zerbitzu publikoak mantentzeko zorpetu. Estatuak bizirauteko arazo esruktrala dago.

14. Garapena. Gilbert Rist: *El desarrollo: Historia de una creencia occidental.*

Garapena mendebaldeko harrokeriaren ondorio da, gizarte modernoa gainontzeko gizarteen ezberdina dela kontsideratze duena, arrazionala eta sekularizatua. Sinismen moderno bat da, egia kolektibo bat eztabaidaezin bat da, bere legitimitatea eremu publikoan eztabiadan jarri ezin daitekena. Beregan sinisten da mundu guztiak berarengan sinisten duelako, ideologiarekin ezberdinduz. Sinismen eraginkorra da, eta erritualen bidez indartzen da.

Duela 50 urte sortu zen, eta garapenaren izenean hainbat gauza egin dira baina lorpena oso eskasak izan dira: pobrezia, ezberdintasunak... Hala ere, sinismen hau inmunizatuta dago. Sinismena eraikitzen da modu batean kontraesanak toleratzen direla. Garapenak etengabe huts egiten du, baina ez du inork zalantzan jartzen.

Azkenik, garapena zalantzan jartzen dugunean, garapenaren aurka jartzen bazara, gizartetik kanpo geratzen zara eta ez duzu aternatibarik.

IRAKURKETA HISTORIKO GEOPOLITIKOA Trumanen diskursoaren oiartzuna ulertzeko.

Bigarren Mundu Gerra eta gero 1945, Europa eta mundua bi bloketan banaturik egongo da, alde batetik, herrialde kapitalistak, eta bestetik herrialde sozialistak, errusiako iraultzatik martxan jarri zena.

Trumanen hitzaldia 1948an izan zen. Bloke kapitalistaren burua AEBena zen, eta honen hegemonia 20.mendearen hasieratik finkatzen hasiko da, baina bigarren mundu eta gero arte ez da finkatuko, ordu arte Bheren pisua handia zelako. Eszenatokia erabat positiboa da AEBetako hegemonia finkatzeko.

Bigarren Mundu Gerraren ondorioz Europako herrialdea suntsituta egongo da, eta testuingu horretan AEBetako orbitara pastzen diren herrialdeak erabateko menpekotasunean egongo dira. BHak, inperio handia izen dena, gerra handia pairatu du, Alemania ere suntsituta dago fisikoki, Frantzia ere, beraz, europako estatu kapitalista potenteak erabat suntsituta daude.

Trumanen diskurtsoak lau puntu izango ditu:

1) NBEa sortuko da gerra irabaziko dutenen artean, bi blokeen arteko adostasunaren ondorioz.

2) Europaren berrakuntza Marshal Planaren bidez bultzatuko da. Helburu nagusia hori izango da, europa berreraikitzea, baina beste hainbat helburu egongo dira. Marshal Plana tresna oso eraginkorra izango da Europan AEBen hegemonia sartzeko eta indartzeko, AEBak europa laguntzeagatik; Europak menpekotasun politikoa eta ekonomikoa izango du AEBekiko, azken hauek dirutza inbertitu zutelako. Europa kapitalista babestuko dute AEBak, herrialde koomunistak ez bihurtzeko. Ondorioz, Marshal Plana oso garrantzitsua izango da, plan estrategiko bat izango da, europako herrialde kapitalistak indartzeko, komunismoari gerra hotzean aurre egiteko.

3) Komunismoari, indar sozialistei aurre egiteko, indar militarra sortuko dute: NATO. Herrialde kapitalista mendebaltarren arteko aliantza militarra, AEBen zuzendaritzapean, mundua kontrolatzeko eta herrialde sozialistei aurre egiteko.

EEBBetako interes politiko ekonomikoak babesteko hiru puntuak izango dira.

4) Laugarren puntua planteatzen denean, hirugarren munduari begira planteatzen, ikuspegi estrategiko globala. Haien asmoa mundu osoa kontrolatzea izango da, horregatik 3.mundua haien helburu estrategikoa izango da, eta hori burutzeko sortu zuten garapenaren proposamena.

1948an 3.munduko herrialde asko kolonien menpe zeuden, Europarren menpe. Horregatik, AEBek pentsatzen dute herrialde hauek oso emankorrak direla haien esku egoteko, baina ez dute aukerarik kontrolpean izateko. Horregatik, sortzen dute garapenaren inguruko diskurtso bat, oso baliagarria izan daitekeena herrialde hauek bereganatzeko, oraindik europako potentzien menpe daudenak. Momentu horretan kokatzen da garapenaren proiektua.

Kolonialismoa, kontrol politiko zuzena litzateke, kanpotik etorritako pertsona batek zuzenean gobernatzen du, eta oso modu ebidentean islatzen da kanpotarren kolonizazioa, aldiz, inperialismoan bertako jendeak kontrolatzen du botere politikoa, baina kontrol ekonomikoa ezartzen da.

4.PUNTUKO DISKURTSOA

Diskurtso honetan AEBen zeregina da mundu mailan haien aurrerapen zientifiko, tekniko eta industrial munduaren esku jartzea. Hori eskeintzen dute,

eta aldi berean, irudikatzen dute bestearen izaera. Bestearen ekonomikoa primitibo bezela definitzen dute. Kolonialismoaren arukako diskurtso bat jaurtzen da, baina semantikoki oso koloniala izaten jarraitzen du.

Haien burua mundu mailan nabarmentzen dela azpimarratzen dute, aurrerapen zientifiko eta teknikoengatik. Horregatik haien zeregina iznago da mundu mailan dauden eskualde behartsuak laguntzea eta herrialde horietan garapena bultzatzea. Horrela planteatuta eskuzabaltasuna erabatekoa da.

Herri libreak kapitalismoan bizi direnak bezela aurketzen dituzte, bestek sozialismoaren esklabu lirateke. Eta helbrua herrialde hauek laguntzea da, eta kapital pribatua oso garrantzitsua inzego da helburu hau lortzeko lanetan. Beraz, garapena lotuta dago kapital pribatuarekin, ez da modu abstraktuan egiten den planteamendua, behartsuei laguntzera joango dira enpresa pribatuak. Modu honetan, herrialde horien bizitza maila hobetzea lortuko dute.

Gainera haien plana ez du zerikusirik inperialismoa zaharrarekin, europarren egindakoarekin, haien asmoa ez da herrialde bat zapaltzea kanpoko interesak babesteko, baizik eta haien helburua garapena eramatea da herrialde horietara, demokrazia eta berdintasunean oinarrituta. Azken hau irudikatu nahi dute.

Merkataritza, merkatu librearen ideia, lotuta dago garapenarekin. Komertzioa garatuz, progresua lortuko dutela baieztatzen dute. Gehiago ekoiztuz orduan eta prosperitate eta bake gehiago lortuko dela. Ekoizpenaren atzean hazkunde ekonomikoa legoke.

Garapenaren diskurtso berri honek eskeintzen duen berritasuna ez da garapenaren kontzeptua bera, baizik eta azpigarapenaren kontzeptua.

AZPIGARAPENA

Garapenaren kontzeptua zaharra da, baliatzen dira existitzen den kontzeptu batez diskurtso berri bat sortzeko, eta bere parekoa sortzen dute Azpigaratua. Binomio hori sortzen duteneane errezagoa izango da diskurtso hegemonikoa sortzea.

Azpigarapena atzeratuaren ideiarekin lotzen da, eta behartzen zaituzte aurrera egitera. Beraz, garapena eta azpigarapena lotuta daude, eta bata bestearen beharrezko dago.

Aurreko DIKOTOMIA, kolonizatzaileak eta kolonizatuak zen, orain aldiz, garatua eta azpigaratua.

Lehenengo dikotomian zapalkuntza, injustizia, menpekotasuna, indarkeria... irudikatzen da, gainera horrelako egoera batekin apurtzeko borroka edo iraultza bat beharrezkoa da, borroka egin behar da kolonizatzaileen aurka, eta dikotomiak planteatzen du etsai harreman bat.

Bigarren dikotomian, aldiz, garapena jarraitzeko adibide moduan aurkezten da, biak familia berekoak izan daitezke, garapena azpigarapenaren ispilua da, ahaleginaren bidez iritsi zaitezke garapenera, garapena azpigarapenaren eredu da. Modu honetan planteatua, uler daiteke azpigaratua zarela nahi duzulako, ez duzulako ahaleginik egin garatzeko, zure errua da, ideia oso liberala, aspalditik

datorrena. Aukera berdintasuna dago, eta azpigarepenetik atera nahi ezgero zure aukera da.

Garapenaren ideia honi indar gehiago emateko kontzeptu gehiago erabiltzen dira. Garatua izateko klabeak honakoak dira:

1) Modernizazioa

2) Hazkunde ekonomikoa. Garapen maila neurtzeko BPGa erabiltzen da. Honen arabera izango zara garatuagoa edo ez.

Autoreak planteatzen du diskurtsoaren gaitasuna jendea konbentzitzeko. Hortan oso garrantzitsua da aldaketaren ilusioa sortzea. Jendeak uste du garapenare bitartez miseriatik eta pobreziatik ateratzea.

Azkenik, garapena lotuta dago teknokraziarkein. Teknikaren bitartez lortuko da azpigarapenetik ateratzea. Beraz, irakurketa historiko oro desagertarazten dute, eta teknikaren bidez eskasi egoera horretatik aterako zarela.

15. Viola, Andreu: La crisis del desarrollismo y el surgimiento de la antropología del desarrollo.

Testu honetan Violak hamarkadak pasa ahala garapenaren kontzeptuak jasan duen egokitzapena eta jasan duen krisia kontatzen du.

MODERNIZAZIOAREN IDEOLOGIA

Modernizazioa eta garapena parekoak dira. Garapenaren inguruko definizioak egiterakoan bi esparru hartzen dira kontuan:

1) Alde batetik, garapena izango litzake bide bat, ikuspegi ekonomiko batetik, ekonomia moderno, industrial eta kapitalistarako trantsizioa egiteko.

2) Beste aldetik, jendearen bizi kalitatea hobetzeko bidea, hau da, pobreziatik ateratzeko, hobekuntza materiala lortzeko...

Bi elementu hauek dira definizio beraren adierazle, ondorioz, elkarbeharra dute, bata bestearen ondotik joan behar dute, bizi kalitate ona ekonomia kapitalista baten barruan eman behar da, biak lotu egiten dira.

Hori planteatu da definizioan, baina urteak aurrera egin ahala, hirugarren mundutan Ekonomia kapitalista barneratu den arren, bigarren faktorea ez da lortu, ez da bizi kalitatea hobetu. BERaz, elkarketa hori ez da bideragarria, bata ez da lortzen bestearen bitartez.

Honez gain, azpimarratzen du garapenaren kontzeptuari lotutako beste bi aldagai daudela:

a) Ekonomizismoa. Garapena ekonomiaren lotzen da modu zorrotz batean, gainera hazkunde ekonomikoa. Ekonomizimos litzateke garapneren definizioaren barruan ikuspegi ekonomiko neoklasikoa txertatzea, eta garapena lotzea hazkunde ekonomikoaren eta merkatu ekonomiarekin.

b) Eurozentrismoa. Europan modernitateare barruan sortutako proiektu kapitalista industrial mudnu osora zabaltzea, irduikkatuz hau del abide bakarra

garatzeko. Honek historiaren ikuspegi bakarra plantetazen du, eta naturarekiko ikuspegi zehatz bat, natura kontrola daitekeen elementua da.

c) Ikuspegi teknokratikoa. Teknika da pobreziatik ateratzeko laguntza nagusia, eta teknikaren izenean adituak agertzen dira zuzentzen eta erabakiak hartzen.